

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3747

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 1ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ingurumen-inpaktuaren txostena formulatzen baita eta ingurumen-baimen bakarra ematen baitzaio material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortege-instalazioari, Barbachano SLk sustatuta, Arritugane errepidea z.g. (Artebakarra gaina) helbidean, Mungiako udal-mugartean (Bizkaia).

AURREKARIAK

2013ko urtarrilaren 21ean, Mungiako Udalak obra-lizentzia eman zion Barbachano SL enpresari, Mungiako Artebakarra parajeen 239 eta 240 lurzatietan betelan bat egiteko, 49.543 m²-ko azalera lur naturaleko indusketetatik etorritako lur eta arroken 484.297 m³ baino bolumen txikiagorako.

2018ko maiatzaren 3an, Mungiako Udalak jarduera-lizentzia eman zion Barbachano SLri, Artebakarran egin beharreko lur eta arroken betelana handitzeko, Mungiako 19. poligonoko 186, 239 eta 240 lurzatietan.

2018ko maiatzaren 29an, Mungiako Udalak obra-lizentzia eman zion Barbachano SLri, Artebakarrako 19. poligonoko 186, 239 eta 240 lurzatietan lur eta arroken betelana handitzeko.

2019ko irailaren 20an eta 2020ko ekainaren 25ean, Uraren Euskal Agentziak eta Mungiako Udalak Barbachano SLren aldeko txostena egin zuten, betelana bigarren aldiz handitzeko, eta Mungiako Udalak betelan osoari buruzko obra- eta jarduera-proiektu bat aurkezteko eskatu zion Barbachano SLri.

2021eko abenduaren 31n, abenduaren 9ko 10/2021 Legea argitaratu zen, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

2024ko martxoaren 4an, 2024ko urriaren 3an, 2024ko azaroaren 13an eta 2024ko abenduaren 13an, Barbachano SLk ingurumen-baimen bakarraren eskabidea egin zuen, Mungiako (Bizkaia) udal-mugartean egungo lur eta arroken betelan baimenduaren bigarren handitzea egiteko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Eskabidearekin batera, dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

- Eskabidea.
- Memoria teknikoa.
- Planoak.
- Dokumentazio sektoriala: airea, urak, zarata, hondakinak, lurzorua.
- Laburpen ez-teknikoa.
- Ingurumen-dokumentua.
- Erantzukizunpeko adierazpena.
- Hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena.

Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikuluan eta hurrengoetan araututako ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura taxutu beharrez, 2025eko urtarrilaren 8an hasiera eman zitzaion tartean ziren Administrazio publikoei eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikulua aplikatuz interesa duten pertsonen kontsultak egiteko izapideari. Kontsulta-izapidea egiteko lege ezarritako epea bukatutakoan, zenbait organismoren txostenak jaso ziren, eta haien emaitza espedientean dago jasota.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko arau-esparrua ezartzea da.

Legeak ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua arautzen du, ingurumena babesteko araudi sektorialean ezarritako administrazio-prozedurak sinplifikatzeko eta bateratzeko premisapean. Hala, bertan xedatzen diren baldintzak eta eskakizunak jasotzen ditu, eta ezabatu egiten ditu jarduerak garatzeko egon daitezkeen oztopo juridiko eta administratiboak. Era horretan, Administrazioak esku hartzeko sistema berri bat ezartzen da legearen I.B eranskinean jasotako jarduera eta instalazioetarako, ingurumen-inpaktuei aurrea hartzeko neurri guztiak bilduko dituen administrazio-ebazpen bakarreko prozedura bakarria egon dadin.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 19. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-baimen bakarraren mende egongo da I.B eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten titulartasun publikoko edo pribatuko jarduera eta instalazioen ustiapena.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 32. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, baimen hori instalazioak eraiki, muntatu edo lekualdatu baino lehen eskuratu beharko da beti, eta instalazioetan egingo diren aldaketetara egokituko da.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan arabera, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarri behar dira, nahitaez, ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen plan, programa eta proiektuak, bai eta haien aldaketak eta berrikuspenak ere, horrela ingurumen-babes handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 76.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egingo zaie II. eranskinean zerrendatutako proiektuei; haien artean daude, II.E eranskineko E9 9.c.) taldean Ibaietatik, lehorretik edo itsasotik erauzitako materialak isurtzeko edo jalkitzeko lehorreko instalazioak, hektarea bat edo azalera handiagoa hartzen badute.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen bigarren xedapen iragankorrek araua indarrean jartzerako bazeuden jarduerak jarraitu beharreko prozedura eta epeak arautzen ditu, arau horretan jasotako baimen-araubide berriaren mende jarri behar baitira.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen bigarren xedapen iragankorren 4. apartatuan adierazitakoarekin bat etorriz, instalazioek beren ingurumen-titulu gaitzailean jasota ez dauden aldaketak egin badituzte, titulu horiei dagokienez egindako aldaketen azalpen-memoria bat bidali beharko da, ingurumen-organoak erabaki dezan instalazio horrek ingurumen-baimen bakarria lortzeko prozedura izapidetu behar duen.

Ingurumen-baimen bakarraren bitartez, egintza bakarrean bilduko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz egindako administrazio-prozedura bakarrean, hondaki-

nak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko isurpenen baimenak, eta dagozkien isurpenen muga-balioak ezarriko dira, aplikatzekoa den araudi sektorialak xedaturikoaren arabera.

Barbachano SLren kasuan, baimen horiek, ingurumenaren arloko beste zehaztapen batzuek gain, honako baimen hauek behar dituzte: hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeari buruzkoa, hondakinak sortzeari buruzkoa, eta lurzorua eta lurpeko uren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Espedientean, beste Administrazio eta organismo eskudun batzuek ere nahitaezko txostenak eginez parte hartu dutela jasotzen da.

Instalazioaren balizko gai kutsagarrien emisioen muga-balioak nahiz instalazioa ustiatzeko beste baldintza batzuk ezartze aldera, eta ingurumena oro har ahalik eta gehien babesteko, ebazpen hau egiterakoan kontuan hartu dira teknika erabilgarri onenen erabilera, baita aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak ere.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa betez, ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokionean, eta jarduera ingurumen-baimen bakarraren eraginpean dagoenean, bateratu egingo dira bi araubideei dagozkien administrazio-prozedurak. Gainera, ingurumen-inpaktuaren txostenaren edukia ingurumen-baimen bakarraren parte izango da, eta administrazio-egintza berean egingo dira bi adierazpen horiek.

Ingurumen-organoak neurriak hartu ditu ingurumen-inpaktuari buruzko jarduerak ingurumen-baimen bakarraren prozeduran txertatzeko. Alde horretatik, aipaturiko prozedura horren izapideetan, proiektuak ingurumenean izan ditzakeen inpaktu guztiak batera bildurik hartu dira kontuan, proiektuaren bideragarritasuna zenbaterainokoa den zehazteko, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren ikuspegitik. Ebazpen honetan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozesu horren emaitza jasotzen da, ingurumen-inpaktuaren txostenaren formulazioaren bidez, bigarren eta hirugarren apartatuetan. Txosten horretan zehazten denez, sustatzaileak proposatutako babes- eta zuzenketa-neurri guztiak eta ingurumen-inpaktuaren txostenean bertan adierazitakoak gauzatu gero, ez da aurreikusten proiektuak ingurumenean eragin negatibo nabarmenik eragingo duenik. Hori dela-eta, ez da beharrezkotzat jotzen Mungiako (Bizkaia) Artebakarra gaineko egungo betelanaren bigarren handitzea egiteko proiektuari dagokionez ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, laugarren xedapen iragankorrean, baimenen eta komunikazioen araubide iragankorra jasotzen du, eta hau zehazten du: «autonomia-erkidegoek lege honetan ezarritakora egokituko dituzte lehendik dauden instalazioen eta jardueren baimenak eta komunikazioak, edo legea indarrean jarri aurretik aurkeztutako eskaerak eta komunikazioak, legea indarrean jarri eta hiru urteko epean».

Horregatik, eguneratu egin behar da hondakinak kudeatzeko baimena, eta arau horretara egokitu.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 43. artikulua, «Ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren edukia» izenekoak, honako hau ezartzen du bigarren apartatuan:

«2.– Ingurumen-baimen bakarrak honako hau jasoko du, gutxienez:

a) Substantzia kutsakorretarako isurpenen mugako balioak eta, hala badagokio, lurzoria eta lurpeko urak babestea bermatzen duten preskripzioak.

- b) Instalazioak sortutako hondakinen kudeaketarako erabiliko diren prozedura eta metodoak, hondakinen kudeaketarako hierarkia kontuan izanda.
- c) Hala badagokio, erkidego arteko edo mugaz gaindiko distantzia luzeko edo mugaz gaindiko eremuetan ondorio negatiboa duen kutsadura minimizatzea bermatzen duten preskripzioak.
- d) Isurpen eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, neurketa-metodologia, maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak zehaztuta.
- e) Ingurumenari eragin diezaioketen eta normalak ez diren egoeretako ustiapen-baldintzei buruzko neurriak, hala nola abian jartzea eta geratzea, ihesak, funtzionamendu-akatsak eta aldi baterako geldialdiak.
- f) Instalazioaren itxiera egiteko baldintzak.
- g) Aplikatu daitezkeen legedi sektorialak ezarritako edozein neurri edo baldintza, edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak arrazoituta emandakoak.»

Horrela, bada, bidezkoa da baimenaren edukian jasotzea beste hainbat alderdi ere, instalazioa gaitzen duten tituluak ematen dituen arautu ez dituen arren, gaur egun Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ezartzen duen ingurumen-baimen bakarraren edukiko parte direnak.

Kontuan hartu dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoa; 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegietan utzita ezabatzea arautzen duena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barbachano SLri (egoitza soziala: Diputazio kalea 6, 1. esk., 48009 Bilbo – Bizkaia; IFK: B95382461) ingurumen-baimen bakarra ematea, Arritugane errepidea z.g. (Artebakarra gaina) 48100 Mungia (Bizkaia) helbidean material natural induskatueterako hondakin geldoen zabortegia instalatzeko, ebazpen honen eranskinetan ezarritako baldintzekin.

Bigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren txostena formulatzea, Barbachano SLk Mungiako udal-mugaratean (Bizkaia) sustatutako material natural induskatueterako hondakin geldoen zabortegiaren jarduerarako, ebazpen honen eranskinetan ezarritako baldintzekin.

Hirugarrena.– Zehaztea bigarren puntuan ezarritako baldintzen arabera, eta betiere ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere –aurrekoen aurkakoak ez diren heinean–, ez dela aurreikusten ingurumenean eragin negatibo adierazgarririk sortuko denik proiektua gauzatzearen ondorioz. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen Barbachano SLk Mungiako udal-mugaratean (Bizkaia) sustatutako material natural induskatueterako hondakin geldoen zabortegi-instalaziorako ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.F eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Laugarrena.— Ez-funtsezko aldaketatzat hartzea Barbachano SLk jakinarazitako lur eta arroketo egungo betelan baimendua bigarrenez handitzeko proiektua, material natural induskatuetarako hondakin geldoen zaborteziaren jardueran.

Bosgarrena.— Ebazpen honen eranskinetan zehazten diren baldintzak eta eskakizunak ezartzea Barbachano SLk Mungiako udal-mugartean (Bizkaia) sustatutako material natural induskatuetarako hondakin geldoen zaborteziaren instalazioa egokitzeko obretarako, ustiapenerako eta jarduteari uzteko.

Baldintza orokorren eranskinean ezarritako eskakizunak alor horretarako xedapen orokorrak onestu bitartean egongo dira indarrean.

Seigarrena.— AAU01161 erregistro-kodea eta NIMA 4820215440 esleitzea Barbachano SLk Mungiako (Bizkaia) Arritugane errepidea z.g. (Artebakarra gaina) helbidean ustiatutako instalazioari. Hona hemen kokapena: UTM (ETRS89) 30N, X: 510583, Y: 4.796.933.

Zazpigarrena.— Ingurumen-baimen bakar honi lotutako baimen- eta inskripzio-kodeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako aplikazio informatikoan agertzen direnak izango dira. Besteak beste, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko baimen- eta inskripzio-kodeak erabili beharko dira hondakinak lekualdatzeko dokumentuak betetzeko.

Zortzigarrena.— Hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko aurretiazko baimen sektorialak indarririk gabe uztea, hala badagokio. Era berean, ebazpen honen berri emango zaie baimen honetan gehituta geratu diren gainerako lizentzia edo baimenetako organo eskudunei, ondorio egokiak izan ditzaten.

Bederatzigarrena.— Barbachano SLri eskatzea erantzun bat eman diezaiela, adierazitako epean, honako kontu hauei:

Sei hilabeteko epean, honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Lurpeko urak kontrolatzeko piezometroak egitea, horien exekuzioaren deskribapen zehatza (planoan behin betiko sakonera eta kokapena jasoz) eta lehenengo buletin analitikoak igortzea.

– Lurzoruaren egoerari buruzko txostena eguneratzea, Lurzorua-BP atalean adierazitakoaren arabera.

Instalazioa egokitzeko jarduketak amaitutakoan, instalazioak hondakinak isurtzeko jarduerari ekiteko gaituta daudenean, eta hasiera eman aurretik:

– Proiektuaren egokitzapena, BO-Obrak ataleko baldintzak barne.

– Mungiako Udalak 2024ko abuztuaren 7an egindako txostenean adierazitako eskabideak aurkeztu izanaren justifikazioa (basogintzaren arloko organo eskudunaren baimena, AESAren baimena, errepideak, jabari publiko hidraulikoko obrei buruzkoa).

– Finantza-azterketa eguneratzea, baimen honetan ezarritako eskakizunak kontuan hartuta.

– Hondakinen kudeaketa-BP atalean aipatutako fidantza aurkeztea.

– Hondakinen kudeaketa-BP atalean zehaztutako erantzukizun zibileko aseguruua (600.000 euro), 646/2020 EDren arabera.

Dokumentazio hori aurkeztutakoan, orduan jarriko da martxan jarduketa. Nolanahi ere, Administrazio publikoek beren eskumenen arloetan egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-gaitasunak baliatu ahal izango dituzte.

Jakinarazpenak jasotako edo harekin batera aurkeztutako datuak, adierazpenak edo dokumentuak zehatzak ez badira, faltsututa badaude edo funtsezko zerbait agertzen ez bada, edo horrelakorik aurkezten ez bada, ezin izango da jarduera egiten jarraitu gertakari horien berri izaten den unetik, kasu horretan egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboei kalterik egin gabe.

Eskatutako dokumentazio hori guztia «Nire Karpeta» atalaren bidez aurkeztuko da, AAU01161_SOL_2024_001 espedientearen barruan. Espediente hori itxita badago, dokumentazioa aurkezteko espediente bat irekiko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako aplikazio informatikoaren bidez, eta adieraziko da aipatutako hasierako eskaera-espedienteari lotutako dokumentazioa dela.

Hamargarrena.– Hiru urtekoa da ebazpen honetan baimendutako aldaketaren jarduera has-teko epea.

Hamaikagarrena.– Instalazioetan edozer aldaketa egiteko, eskaera egin beharko da, edo horren berri eman beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-informazioko sisteman, EAeko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 46. artikuluan (funtsezko alda- ketak) edo 47. artikuluan (ez-funtsezko aldaketak) ezarritakoaren ondorioetarako, artikulua horietan kasuan-kasuan eskatzen den informazioa adierazita.

Sustatzaileak aldaketa bat funtsezkoa ez dela justifikatzeko dokumentazioaren kasuan, ingu- rumen-organoak aztertu eta kalifikatu egingo du eskatutako aldaketa, eta funtsezkoa den edo ez ebartziko du.

Halaber, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzo- rua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarri- takoarekin bat etorritik.

Hamabigarrena.– Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingu- rumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Barbachano SLk aldaketa horien berri emango du.

Hamahirugarrena.– Ingurumen-baimen bakarraren indarraldia mugagabea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldian-aldian berrikusiko du, ingurumen-baimenen aurrerapen-klausulari jarraikiz.

Aurrekoa gorabehera, ebazpen honetan hondakinak tratatzeko jarduerari buruz jasotako bal- dintzen indarraldia automatikoki berrituko da zortzi urtean behin, agintari eskudunek aldeko ikuskapena egin ondoren. Era berean, atmosfera kutsa dezaketen jarduera gisa baimena behar duten jardueren baldintzen indarraldia automatikoki berrituko dira zortzi urtean behin.

Ingurumen-baimen bakarraren berrikuspena ofizioz egingo da honako kasu hauetan:

a) Instalazioak eragindako kutsaduraren ondorioz ezarritako emisioen muga-balioak berrikus- tea edo berriak hartzea komeni denean.

b) Isurtzeak nabarmen murriztu daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela-eta beste teknika batzuk erabili beharra dagoenean.

d) Teknika erabilgarri onenak erabiliz lortu litezkeenak baino baldintza osagarri zorrotzagoak aplikatzea beharrezkoa denean, ingurumen-kalitateko arauak beteko badira.

e) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen denean.

f) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra dagoenean; bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

g) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen denean.

h) Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz egindako azterketaren arabera, aldaketa beharrezkoa dela ondorioztatzen denean.

i) Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 261. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arazoien arabera, isurtzeko baimena berrikusi eta ezeztatu ahal izango da.

Ingurumen-baimen bakarra berrikusteak ez du kalte-ordainerako eskubiderik ekarriko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hamalugarrena.– Organo honi jakinarazi beharko zaio instalazioak aldi baterako edo behin betiko utzi direla edo itxi egin direla, hartutako edo hartuko diren neurriak eta denbora-sekuentzia zehaztuz, kutsadura-arrisku oro saihesteko.

Ulertuko da jarduera behin betiko utzi dela, baldin eta urtebeteko epean ez badu jarduera garatzen, eta titularrak ez badio organo honi komunikazio frogagarririk bidaltzen, egoera horren arazoiak behar bezala azaltzeko.

Hamabosgarrena.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 28.1 artikulua arabera, ebazpen honen xede den material natural induskatuetarako hondakin geldoen zaborteziaren jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, Barbachano SLk aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onetsi dezan.

Kasu horretan, hondakinak kudeatzeko jarduera bat izanik, titulartasuna hirugarren baten alde transmititzeko, aldez aurretik egiaztatu beharko da, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek egin beharreko ikuskapen-bisitaren bidez.

Hamaseigarrena.– Ingurumen-baimen bakar honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun gisa tipifikatuta dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 106. artikulua arabera, eta aipaturako legearen 108. artikuluan jasotako zehapenak ezartzea ekar dezake.

Hamazazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honelakoren bat gertatuz gero:

– Epean ez bada egiaztatzen ebazpen honen bederatzigarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen direla, eta interesdunak ez badu behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

– Ebazpen honetan baimendutako jarduera ez bada hasten hiru urteko epean, ebazpen honen hamargarren apartatuan adierazitakoaren arabera, eta interesdunak ez badu behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

– Urtebeteko epean ez badu jarduera garatzen, eta titularraren komunikazio frogagarririk bidaltzen ez bazaio baimena eman duen Administrazioari, egoera horren arrazoiak behar bezala azaltzeko.

Hemezortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Barbachano SLri, Mungiako Udalari, ingurumen-baimen bakarra emateko prozeduran parte hartu duten organismoei eta gainerako interesdunei.

Hemeretzigarrena.– Agintzea ingurumen-baimen bakar hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Hogeigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu daiteke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSU BILBAO BEGOÑA.

ERANSKINA

USTIATZEKO ETA JARDUERA UZTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK (BP)

Sustatzaileak ustiatzeko eta jarduera uzteko bete beharko dituen baldintzak eta eskakizunak eranskin honetan eta ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorren (BO) eranskinean jasotakoak dira. Baldintza orokorreki baldintza partikularrak gailenduko zaizkie beti.

ATALA: JARDUERA-BP

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.B eranskineko 2. kategorian sartuta dago, «Hondakin ez-arriskutsuak tratatzeko baimena behar duten jarduerak edo instalazioak» izenekoan.

Instalazioak 142.190 m²-ko azalera hartzen du guztira Arritugane errepidea z.g. helbidean, Artebakarra izeneko parajeon.

Barbachano SLren instalazioetan garatutako jarduera hau da: material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia. 1.219.921 m³-ko betelan-bolumen baimendu baterako baimena dago, eta dagoeneko ia beteta dago; bolumen hura handitzea eskatzen da 1.283.000 m³-ko betelan-bolumen gehigarriekin; beraz, baimendutako guztizko bolumena 2.502.921 m³-koa izatera pasatuko da.

Hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduera kudeaketa-eragiketa hauei dagokie:

D0501 Hondakin geldoak zabortegietan uztea.

Instalazioak obrako bulegoak, aldagelak, komunak eta dutxak ditu, eta metalezko edukiontziak gasolioa eta bidoiak gordetzeko.

Baimen honen xede den instalazioa (isurketa-ontzia barne) puntu hauek mugatzen dute (UTM ETRS 89 koordenatuak):

X: 510456,72. Y: 4797170,40.

X: 510503,94. Y: 4797147,08.

X: 510560,31. Y: 4797118,13.

X: 510599,05. Y: 4797098,68.

X: 510619,52. Y: 4797082,68.

X: 510683,89. Y: 4797081,48.

X: 510731,30. Y: 4797080,69.

X: 510752,18. Y: 4797076,39.

X: 510800,06. Y: 4797054,36.

X: 510846,19. Y: 4797035,80.

X: 510876,21. Y: 4797025,88.

X: 510896,25. Y: 4797007,28.

X: 510881,96. Y: 4796967,82.

X: 510874,20. Y: 4796925,77.

X: 510873,90. Y: 4796842,99.

X: 510861,32. Y: 4796818,70.

X: 510845,89. Y: 4796815,64.

X: 510814,84. Y: 4796783,52.

X: 510739,86. Y: 4796753,06.

X: 510651,84. Y: 4796719,12.

X: 510591,76. Y: 4796755,86.

X: 510584,35. Y: 4796766,69.

X: 510560,01. Y: 4796754,08.

X: 510547,86. Y: 4796738,03.

X: 510545,35. Y: 4796672,14.

X: 510542,81. Y: 4796629,23.

X: 510532,42. Y: 4796598,01.

X: 510572,07. Y: 4796553,43.

X: 510621,28. Y: 4796515,80.

X: 510649,58. Y: 4796496,78.

X: 510718,77. Y: 4796476,52.

X: 510732,29. Y: 4796452,27.

X: 510734,53. Y: 4796409,79.

X: 510729,38. Y: 4796369,91.

X: 510689,39. Y: 4796353,16.

X: 510630,68. Y: 4796343,75.

X: 510572,84. Y: 4796337,59.

X: 510537,16. Y: 4796341,44.

X: 510501,06. Y: 4796341,82.

X: 510473,63. Y: 4796363,01.

X: 510457,09. Y: 4796365,80.

2025eko irailaren 4a, osteguna

X: 510461,40. Y: 4796392,90.

X: 510503,09. Y: 4796435,00.

X: 510518,68. Y: 4796478,37.

X: 510520,33. Y: 4796537,75.

X: 510483,28. Y: 4796590,14.

X: 510479,31. Y: 4796621,98.

X: 510484,92. Y: 4796655,37.

X: 510479,63. Y: 4796696,53.

X: 510455,78. Y: 4796794,44.

X: 510443,69. Y: 4796874,60.

X: 510382,28. Y: 4796931,50.

X: 510400,25. Y: 4796986,57.

X: 510420,37. Y: 4797048,57.

X: 510426,84. Y: 4797086,93.

X: 510434,66. Y: 4797091,93.

X: 510440,28. Y: 4797113,61.

X: 510448,07. Y: 4797140,49.

Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia handitzeko, +90 kotan jarri da bermea. Gero, gora egiten du 2H:1V profil baliokidearen arabera, 7 m-ko zabalerako atzeraemangune-bermetan ezarrita +219 kotara arte. Atzeraemangune-bermek luzetarako eta zeharkako gutxieneko malda izango dute, urak behar bezala husteko aukera izateko.

Handitzearen oinetan dike bat eraikitzea proiektatu da, eusteko elementu gisa jardungo duena. Dikea lehendik dagoen lurrian sartuta egongo da, eta betelaneetik eratorritako bultzadei aurre egiteko elementu pasibo gisa funtzionatuko du. Lur-erazketatik ateratako produktuez egindako lubeta bidez egingo da, horretarako egokiak badira; egokiak ez badira, betelanean bertan utziko dira, eta jatorri naturaleko maileguzko produktuak erabiliko dira. Dikea 0,5 m-tik beherako hurrenez hurreneko geruzen bidez egingo da. Ezaugarri geometrikoak: luzera: 85 m; zabalera gailurrean: 7,0 m; ezponden malda kanpoaldean eta barrualdean 1H:1 V.

Isurketa-ontzia perimetralki itxita dago.

Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegiaren jarduketa-eremuak Mungia 19. poligonoko 186, 187, 239 eta 240. zenbakidun katastro-lurzatiak hartzen ditu barnean, eta honako puntu hauek mugatzen dute (UTM ETRS 89 koordenatuak):

X: 510455,74. Y: 4797173,98.

X: 510521,79. Y: 4797139,19.

X: 510579,25. Y: 4797108,95.

X: 510601,12. Y: 4797099,01.

X: 510617,56. Y: 4797083,98.

X: 510668,56. Y: 4797082,11.

X: 510708,89. Y: 4797081,74.

X: 510751,85. Y: 4797076,72.

X: 510780,25. Y: 4797064,19.

X: 510818,55. Y: 4797047,79.

X: 510848,69. Y: 4797034,72.

X: 510870,78. Y: 4797027,07.

X: 510891,35. Y: 4797011,50.

X: 510896,14. Y: 4797007,71.

X: 510883,80. Y: 4796974,32.

X: 510876,78. Y: 4796943,87.

X: 510873,03. Y: 4796907,35.

X: 510874,29. Y: 4796871,92.

X: 510873,35. Y: 4796844,94.

X: 510859,04. Y: 4796817,18.

X: 510845,89. Y: 4796817,38.

X: 510834,06. Y: 4796803,06.

X: 510814,62. Y: 4796784,28.

X: 510800,71. Y: 4796780,36.

X: 510780,06. Y: 4796772,85.

X: 510746,38. Y: 4796756,22.

X: 510705,96. Y: 4796738,17.

X: 510659,66. Y: 4796721,19.

X: 510651,18. Y: 4796720,74.

X: 510605,47. Y: 4796748,73.

X: 510587,72. Y: 4796763,44.

X: 510579,22. Y: 4796778,60.

X: 510559,19. Y: 4796792,76.

X: 510541,34. Y: 4796801,40.

X: 510522,28. Y: 4796823,15.

X: 510488,97. Y: 4796848,99.

X: 510455,22. Y: 4796872,99.

X: 510417,77. Y: 4796902,41.

X: 510379,99. Y: 4796933,55.

X: 510388,12. Y: 4796954,37.

X: 510393,76. Y: 4796960,88.

X: 510391,58. Y: 4796967,81.

X: 510398,29. Y: 4796988,95.

X: 510410,73. Y: 4797026,89.

X: 510414,84. Y: 4797040,65.

X: 510419,14. Y: 4797071,32.

X: 510425,58. Y: 4797090,24.

X: 510429,61. Y: 4797090,57.

X: 510433,12. Y: 4797101,79.

X: 510444,04. Y: 4797142,11.

Drainatze-sareei dagokienez, jariatze-urak eta ur iragaziak biltzeko sistema bat diseinatu da, eroanbideak eta maldak dimentsionatuz, ebakuazioa bermatuta gera dadin gainazaleko geruzen higadurarik eta arrasterik gabe. Honako hauek ditu:

– Lurrazal azpiko urak hartzeko eta drainatzeko sarea, betelanaren bidez iragazitako urak biltzen dituena.

– Euri-urak hartzeko eta drainatzeko sarea, kanalizazio perimetral batek osatua.

– Euri-uren barneko drainatze-sistema, azaleko urak jasoko dituena tarteko ezponden oinean.

Sarea kutxatilen bidez egituratzen da, eta bildutako ura grabitatez garraiatzen da betelanaren oinean dagoen kutxatilaraino. Kutxatila horren osagaiak dira:

– Hondoko drainaren laginak hartzeko kutxatila.

– Perimetralak nahasteko kutxatila: sarrera honen aurretik laginak hartzeko kutxatila independente bat dago ekialdeko eta mendebaldeko perimetrorako.

– Ibilgura isuri aurreko dekantazio-kutxatila.

Kanal perimetralak eta lurrazal azpiko urak drainatzeko sistemak jasotzen dituzten euri-urak ur garbitzat jotzen dira, eta ur-ibilgura itzultzen dira azpiegituraren azpian.

Gasolio-depositu bat badago makina-ibilgailuentzat.

Sortzen diren hondakin-urak ur beltzak dira, eta kudeatzaile baimendu baten bidez kudeatzen den hobi septiko bat instalatu da haientzat.

Barrutiak bi gurpil-garbigailu ditu, haien urek zirkuitu itxian zirkulatzen dutela. Garbigailu horien bidez, kamioiei atxikitako lurrak, lohiak eta zikinkeria garbitzen dira.

Obra-fasean eta instalazioa ustiatzean, aurreikusten da noizean behin airera emisioak sortzea eta partikula esekiak askatzea, makinen mugimenduaren, ibilgailu astunen trafikoaren eta lur-mugimenduen eraginez.

Soinu-emisioen iturri nagusiak makineriak sortutakoak izango dira, ibilgailu astunen zirkulazioaren, materialen karga eta deskargaren, eta lurrak mugitzeko eta trinkotzeko lanen ondorioz.

Instalazioak atzerakako hondeamakinak, bultzagailuak eta arrabola dardaratzaille bat ditu lur-mugimenduetan jarduteko. Kamioien deskargaren ondoren, lurrak hurrenez hurrenko geruzatan zabalduta eta trinkotzen dira, aipatutako 10 m-ko altuerara arteko ezpondak sortzen, 7 m-ko zabalerako atzeraemangune-bermekin.

Baimendutako bolumen berrirako ustiapen-planak lau fase independente definitzen ditu: hiru ustiapen-fase eta leheneratze-fase bat. Fase berri bakoitza ustiatzen hasteak ekarriko du drainatzeak prestatzea eta aurreko fasea leheneratzea.

1. fasea.

Betelanaren hondoan hasiko da, +92 m-ko kotan. Hondakina itxiera-dikearen estradosean bermatuko da, +109 m-ko kotara iritsi arte. Hondakin-geruzak barrurantz hedatuko dira, ur-iragaziak hartzeko aukera emango duen malda bat eratuz, eta betelanaren hondoko drainatze-sistemara bideratuz.

Era berean, 2H:1V ezponda indibidualak sortuko dira, 7 metroko zabalerako atzeraemangune-bermekin, 10 m arteko desnibelarekin, eta 4 ezponda indibidualen (E1-E4) betelana aurreikusten da, +140 m-ko kotara iritsiz.

Fase honen edukiera 415.000 m³-koa da.

2. fasea.

1. fasean ustiatutako eremu osoa ingurumenaren aldetik leheneratzeari ekingo zaio.

Fase honen hasiera +140 m-ko kotan dago, eta E4tik E7ra bitarteko ezpondek osatzen dute (2H:1V malda), 7 metroko zabalerako atzeraemangune-bermekin eta 10 m-ko arteko desnibelarekin elkarren artean. Gehieneko kota +162 m-ra dago.

Fase honen edukiera 248.000 m³-koa da.

3. fasea.

2. faseko eremua ingurumenaren aldetik leheneratzeari ekingo zaio.

+162 m kotan hasten da, eta aurreko faseetako (1 eta 2) ezaugarri berak dituzten hiru ezponda garatuko dira, +219 m-ko gehieneko kotara iritsiz.

Fase honen edukiera 620.000 m³-koa da.

4. fasea.

3. fasea eta zona osoa leheneratuko dira.

Eskatutako handitzean metatutako bolumen osoa 1.283.000 m³-koa da, eta, hondakinen urteko batez besteko sarrera-bolumena 125.000 m³-koa dela kontuan hartuta, haren balio-bizitza 10 urtekoa dela kalkulatzen da.

ATALA: OBRAK-BP

JARDUERA EZARTZEKO EGOKITZAPEN-OBRETARAKO BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK

Obrak egiteari dagokionez, ingurumen-baimen bakarreko ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorrak (BO) bete beharko dira (Obrak-BO).

ATALA: HONDAKINEN KUDEAKETA-BP

JARDUERAN HONDAKINAK KUDEATZEKO BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK

Hondakinen kudeaketari buruz, ingurumen-baimen bakarreko ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorrak bete beharko dira (Hondakinen kudeaketa-BO).

– Hondakin onargarriak eta kudeaketa-eragiketa.

Barbachano SLk ondorengo Europako Hondakinen Zerrendako EHZ kodea duten hondakin hauek kudea ditzake. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen, zeinaren bidez aldatu egin baitzen 2000/532/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EB Zuzentarauan xedatutakoa betez. Hortaz, hondakin hauek baino ez dira onartuko:

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
17 05 04	Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehazten ez direnak

Jatorri naturaleko material hauek soilik onartuko dira:

- Hondeaketetan, lur-erazketetan, lur-mugimenduetan eta abarretan ateratako lurrak.
- Arroakak, lehenago aipatutako prozesuetatik erauziak.
- Jatorri naturaleko materialen agregakinak (sailkapenetik eta/edo birrintzetik datozen materialak).

Kanpoan utziko dira hondeatzean material naturalez bestelako material edo objektuekin nahasita dauden materialak, hala nola hormigoi-hondarrak, material zeramikoak, metalak, plastikoak, zurak eta abar.

Ez da inola ere onartuko lurzorua kutsa dezakeen jarduera bat duen edo izan duen lurzati batetik etorritako materialik, eta ezingo dira bertan bota % 65etik gorako hezetasuna badute. Era berean, ez da onartuko kutsatuta egon daitekeen sumoak dauden lurzoru batetik etorritako materialik.

Kokaleku horietatik datozen materialak badira, nahitaez ingurumen-organoak aldeko iritzia eman beharko du lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren esparruan, 4/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, lurzoru naturala den material induskatua soilik onartuko da, baldin eta frogatzen bada ezein substantzia kutsatzaileraren edukiak ez dituela gainditzen VIE-A balioak eta 50 mg/kg-ko balioa TPHrako.

Lurzoru naturalarekin parekagarria den arroka-substratu meteorizatu bat kudeatzen bada, bete beharreko irizpidea izango da parametro kutsatzaileetako bakar batek ere ez gainditzea VIE-A balioak eta 50 mg/kg-ko balioa TPHrako.

Era berean, ez da landare-lurrik onartuko, eta 30 cm arteko gainazaleko geruzetan bakarrik erabiliko dira lur horiek, bai eta leheneratze-elementu gisa ere.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskineko D0501 kodea dagokio jarduera kudeatzeko eragiketari:

«D0501 Hondakin geldoak zabortegetan uztea».

Barbachano SL enpresak isuritako hondakinen laburpena bidali beharko dio urtero ingurumen-organuari, formatu elektronikoa, honako hauek adieraziz:

- Hondakinaren sailkapena, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez argitaratutako hondakinen zerrendaren arabera.

- Hondakinaren izendapena.

- Hondakinaren kantitatea (tonatan).

- Hondakinaren jatorria (ekoizlea, udalerrria eta lurralde historikoa).

– Edukiera.

Gehieneko edukiera guztira: 2.502.921 m³ (aurrez baimendutako bolumena gehi handitzea).

– Bestelako funtzionamendu-baldintzak.

Aldian-aldian, eta betiere intentsitate handiko euriteen edo haize gogorren ondoren, drainadura-obra edo zaintza-arekak behar bezala mantenduko dira, lohiz eta landarediz garbi egon daitezen eta bildutako jariatze-ura ebakatu ahal izan dezaten, ur bildurik edo tapoirik sortu gabe. Pitzadurak eta/edo hausturak behatuz gero, berehala konponduko dira.

Hilero aztertuko da hesi perimetrala, hondatuta dauden zatiak berehala ordeztuz.

Astero, isurketa-ontziaren barruko bideetako galtzada eta arekak xehetasunez garbituko dira, ibilgailuen pasabidea edo euri-urak jasotzea oztopa dezakeen lohia kenduz.

– Erantzukizun zibileko aseguru.

Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da sei ehun mila euroko (600.000 euro) zenbatekoaz, honako hauek estaliko dituena: hirugarren pertsonen edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak. Barbachano SLk kontratatutako aseguruaren baldintza orokor, partikular eta espezifikoen kopia bat bidali beharko dio ingurumen-organuari, eta hark onartu egin beharko du.

Hondakinak hondakindegietan utzita ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 11.d) artikuluan adierazitakoaren arabera, aseguru horrek honako kontingentzia hauek estali behar ditu gutxienez: heriotzagatik, lesioengatik edo pertsonen gaixotasunagatik eta gauzetan izandako kalteengatik zor diren kalte-ordainak.

Horrez gain, ingurumena zaintzeko programarekin batera, erantzukizun zibileko aseguru eguneratu izanaren egiaztatzea bidali beharko dio urtero ingurumen-organuari, eta, polizan aldaketaren bat izanez gero, horren berri eman beharko dio ingurumen-organuari, kontratatutako aseguruaren baldintza orokor, partikular eta espezifikoen kopiarekin batera.

– Finantza-azterketa.

Barbachano SLk finantzen azterketa eguneratua aurkeztu beharko du bost urtean behin, eta bertan, instalazioa ezarri eta ustiatzeko kostuak, ezarritako bermeetatik eratorritako gastuak (erantzukizun zibileko aseguru eta fidantza), gutxienez 30 urteko epearen ondorengo itxiera eta mantentze-lanen zenbatetsitako kostuak eta neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa betearazteari buruz baimen honetan ezarritako eskakizun guztiak.

– Fidantza.

Bostehun eta berrogeita zortzi mila hirurehun eta hamalau euro eta berrogeita hamazazpi zentimoko (548.314,57) fidantza jartzea, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23. artikulua 5.b) apartatua xedatutakoari jarraikiz. Fidantzaren zenbatekoa hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretuaren 3.1.a) artikulua 3. apartatua eta Hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 14. artikulua ezarritakoaren arabera zehazten da.

Sustatzaileak fidantzaren zenbatekoa murriztea eska dezake instalazioaren ustiapen-planaren arabera; bertan, ustiapen- eta leheneratze-faseak zehaztuko dira. Fidantza horren gutxieneko zenbatekoak bat etorri beharko du fase horien exekuzio-kostuarekin eta klausura osteko 30 urteko mantentze-kostuarekin.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu daiteke, aurreko 12 hilabeteetako KPI kontsumoko prezioen indizearen arabera handituta.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, Ingurumen Sailburuordetzak Barbachano SLk sustatutako hondakinak kudeatzeko jarduera uztea baimendu arte edo dagokionean jarduera uzteko finkatutako baldintzak bete arte.

– Administrazioarekiko harremanen arduraduna.

Barbachano SLk ustiaketaren teknikari arduradunari buruzko datuak bidaliko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari, zeinaren ardurapean egingo baitira lanak baimen honetan xedatutako neurrien eta aurkeztutako proiektuan xedatutakoaren arabera. Aldaketa oro Barbachano SLren legezko ordezkariak eta izendatutako pertsonak sinatutako dokumentu batean jasoko da, eta datu hauek bildu beharko ditu: izen-abizenak, NANA, harremanetarako helbidea eta prestakuntza teknikoa. Barbachano SLk ingurumen-organoari jakinaraziko dio aipatutako aldaketa.

ATALA: AIREA-BP

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Aire-a-BOak betetzea.

Aireari dagokionez organo honek onesten dituen ingurumen-baimen bakarreko ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorrak bete beharko dira (Aire-a-BO).

– Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak.

Barbachano SLren instalazioa urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren –atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duenaren eta bera ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituenaren– katalogoan bildutako C 09 04 01 01 jarduerari lotuta dago.

Instalazioan, aipatutako katalogoan jasotako jarduera hauek egiten dira:

Jardueraren kodea	Taldea	Jarduera	Deskribapena
07 03	-	Ibilgailu astunak	Ibilgailu astunen trafikoa
09 10 09 50	B	Biltegiatzea edo manipulazio-eragiketak, hala nola hauts-itxurako hondakin ez-metalikoak nahastea, bereiztea, sailkatzea, garraiatzea edo txikitzea; material horiek manipulatzeko gaitasuna ≥ 500 edo ≥ 10 tonakoa da eguneko, hondakin arriskutsuen kasuan	Hondakinak kargatzea/deskargatzea

– Bestelako funtzionamendu-baldintzak.

Instalazioan sortzen diren partikula solidoen eta hautsaren emisio lausoak erregimen etenean sortzen dira, eta ibilgailuen sarrera-irteerarekin eta hondakinen deskarga- eta zabaltze-lanekin lotuta daude. Era berean, instalazioaren barruan ibilgailuak 20 km/h-tik beherako abiaduran ibiliko dira beti.

– Immisio atmosferikoak kontrolatzea.

Ustiategiaren inguruko gutxienez bi puntutan, immisio-mailak neurtzeko urteko kanpaina bat egingo da. Baldintza okerreneko egoeretan egin behar da laginketa hori.

Kontrol-puntuak	Neurketa-parametroak	Kontrol-maiztasuna	Kontrol mota
1. puntua	Partikula esekiak PM ₁₀	Urtero	Kanpokoak
2. puntua	Partikula esekiak PM _{2,5}		

Kontrol horien emaitzak dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera igorriko dira.

ATALA: URA-BP

HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Ura-BOak betetzea.

Urari dagokionez organo honek onesten dituen ingurumen-baimen bakarreko ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorrak bete beharko dira (Ura-BO).

– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia

Jarduera taldea: Hondakinen kudeaketa

Mota-taldea – EJSN: 1-7 Ter-3821

Isurketa-puntua	Isurketaren jatorria
-	Ur beltzak
1	Hondoko draineko urak (lurrazal azpikoak)
	Lurrazaleko urak

Ez da hondakin-urik isurtzen.

Ur beltzak hobi septiko batera eramaten dira, eta kanpotik kudeatzen dira aldian-aldian.

Hondoko draineko urak eta lurrazaleko urak ur garbitzat jotzen dira.

- Lurrazal azpiko urak.

Lurrazaleko drainatze-sarea betelanaren barrualdetik arduratzen da iragazi daitezkeen eta iragazgaiztearen azpian jariatze hipodermiko gisa zirkula lezaketan prezipitazio-urak hartzeaz, gidatzeaz eta ebakuatzeaz. Drain frantsesen sistemak ezponden oinetan bilduko ditu ur horiek, eta honako hauek ditu:

- * Luzetarako drain bat, gaur egun erreka zeharkatzen duen trazaduraren gainean.

- * Zeharkako 4 drain, handitze berriaren hondoan, luzetarako drainera konektatuta.

- * Gaur egungo lur-betelanean, drain frantses batzuk egingo dira ezponden oinean.

- Lurrazaleko urak.

Egindako diseinuak ura biltzeko ahalbidetzen duen moduan, ebakuazioa ziurtatzen da lurrazaleko geruzen higadurarik eta arrasterik gabe. Hau da proposatutako drainatze-sarea:

- * Euri-urak hartzeko eta drainatzeko sarea, kanalizazio perimetral batek osatua.

- * Euri-uren barneko drainatze-sistema, azaleko urak jasoko dituen tarteko ezponden oinean.

Era berean, lur gaineko fluxuen sarreraren aurka perimetralki babestuko du elementu hauez osatutako sare batek:

- Areka perimetralak.
- Barruko arekak.
- Erregistro-kutxatila.
- Zorroten mailakatuak.
- Kolektoreak.
- Dekantazioko eta laginak hartzeko kutxatila.

Dekantazio-kutxatilan egin ahal izango da kontrola eta hartu ahal izango dira laginak, eta honako osagai hauek izango ditu:

- Hondoko drainaren laginak hartzeko kutxatila.
- Perimetralak nahasteko kutxatila (hona sartu aurretik, ekialdeko eta mendebaldeko perimetralek laginak hartzeko kutxatila independente bat izango dute).
- Ibilgura isuri aurreko dekantazio-kutxatila.

Baimen horrek ez du babesten baldintza honetan esplizituki adierazi ez den substantziarik isurtzea, nahiz eta jardueraren ondorioz sortu (lurrazaleko uren egoeraren jarraipen- eta ebaluazio-irizpideak zein ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dituen irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuaren IV. eta V. eranskinetan zehaztu dira).

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, Barbachano SLk beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazteko instalazioetan, isurketak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko; aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta, behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Halaber, baimenaren titularrak funtzionamendu-egoera ezin hobean mantendu beharko ditu kolektoreak eta arazketa-instalazioak, eta betebeharrak horietaz arduratzeko pertsona bat izendatu beharko du, zeinari instalazioak zaindu eta funtzionatzeko arau zorrotzak eta beharrezko neurriak emango dizkion.

– Isurketa-uraren kalitatea kontrolatzea.

Sustatzaileak aurkeztu duen dokumentazioaren arabera, atal honetako taulan adierazitako analisiak egingo dira.

Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordinatuak	Parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
Lixibiatuen erregistro-putzua (1)	X: Y:	Maila piezometrikoa	Hilero	Barnekoa
Hondoko draina	X: 510.482,13 Y: 4.797.107,03	Emaria	Jarraitua	Barnekoa
		Emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasuna, SS	Hilero	Kanpokoak
		Emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasuna, olioak eta koipeak, SS, DQO, DBO ₅ , Ca ⁺² , SO ₄ ⁻² , HCO ₃ ⁻ , CO ₃ ⁻²	Sei hilean behin	Kanpokoak
		Emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasuna, SS, DQO, N-NH ₃ , NO ₃ ⁻ , N totala, P totala, Al, Sb, As, Cd, Cu, Cr totala, Cr (VI), Fe, Mn, Ni, Hg, Pb, Zn, F ⁻ , CN ⁻ totalak, DBO ₅ , AOX, fenolen indizea	Urtero	Kanpokoak
Ekialdeko kanal perimetrala	Zehazteke	Emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasuna, SS, DQO, N-NH ₃ , NO ₃ ⁻ , N totala, P totala, Al, Sb, As, Cd, Cu, Cr totala, Cr (VI), Fe, Mn, Ni, Hg, Pb, Zn, F ⁻ , CN ⁻ totalak, DBO ₅ , AOX, fenolen indizea	Urtero	Kanpokoak
Mendebaldeko kanal perimetrala	Zehazteke			
Azken isuria	X: 510.505,07 Y: 4.796.971,84	Emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasuna, SS	Hiru hilean behin	Kanpokoak
Lurpeko urak	Ibaian gora: P-3: X: 510.809,85 Y: 4.796.788,64 Ibaian behera: P-1: X: 510.465,64 Y: 4.797.159,86 P-2: X: 510.501,36 Y: 4.797.139,14	pH-a, tenperatura, maila freatikoa, eroankortasuna, SS	Hiru hilean behin	Kanpokoak

(1) Drainatze-akatsen kasuan segurtasun-faktoreak arriskuan jartzen ez dituen gehieneko maila freatiko onargarria zehaztu beharko da.

Metalen kontzentrazioak elementu horien «guztizko» edukiari dagozkie.

Ezingo da diluzio-teknikarik erabili.

Gainera, ingurune hartzaileko ingurumen-arloko kalitate-arauak bete beharko dira. Bestela, titularrak behar den tratamendu egokia ezarri beharko du, isurketak kalitate-arauak betetzeari kale ez giteko.

Baimenaren titularrak arazketa-instalazioen funtzionamendua eta isurketen kalitatea eta kantitatea kontrolatuko ditu aldizka, bat etorri atal honetan ezarritako analisien maiztasunarekin eta parametroekin. Informazio hori organismo honi bidali beharko zaio, «adierazpen analitikoak» baldintzan ezarritako maiztasunarekin, eta organo eskudunetako funtzionarioek eskuragarri izan beharko dute aztertzeko, behar diren egiaztapenak eta azterketak egin ditzaten.

Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira laginketak beti.

– Instalazioak kontrolatzeko elementuak.

Kontrol-puntuak: Arazketa-instalazioetako efluenteen irteera bakoitzak kutxatila bat izan beharko du, isurketaren lagin adierazgarriak hartzeko eta emaria neurtzeko, instalazio horietarako dagokion apartatuan kontrolak ezarri badira. Azken isurketaren erakusle den kutxatilara kanpotik sartu ahal izango da, jarduera garatzen den instalaziora sartzeko beharrik izan gabe.

Ikuskaritza eta zaintza: Aurreko baldintzetan ezarritako kontrolez gain, organo eskudunak egokitzat jotzen dituen azterketa eta ikuskapen guztiak egin ahal izango ditu isurketaren ezaugarri kualitatiboak zein kuantitatiboak egiaztatzeko eta, hala badagokio, kontrol horien baliozkotasuna egiaztatzeko. Eginkizun horiek zuzenean edo administrazio hidraulikoaren entitate laguntzaileen bidez egin ahal izango dira.

Organo eskudunak une oro ikuskatu eta zainduko ditu obrak eta instalazioak. Kontzeptu horien ondorioz eman beharko diren ordainsariak eta gastuak onuradunak ordainduko ditu, indarrean dauden xedapenak kontuan hartuta. Arazketa-instalazioen funtzionamendua ez bada egokia, egokitzat jotzen diren zuzenketak ezarri ahal izango dira arazketa efizientea izateko.

ATALA: HONDAKINAK SORTZEA-BP

LANTEGIAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO
BALDINTZAK PARTIKULARRAK

Hondakinak sortzeari buruz ingurumen-organo honek onesten dituen baldintza orokorrak bete beharko dira (Hondakinak sortzea-BO).

– Sortutako hondakinak.

Taula honetan ageri dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak (izartxoarekin eta EHZ kodearekin adierazita) eta ez-arriskutsuak:

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Arrisku-ezaugarriak	Kudeatzeko modua	Biltegitratzeko modua	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
200121*	Hodi fluoreszenteak	HP14	R13	Kutxa	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa
150110*	Plastikozko ontzi hutsak	HP14	R13	Edukiontzia	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa
150110*	Metalezko ontzi hutsak	HP5	R13	SEH	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa
130205*	Olio erabiliak	HP6/14	R13	Bidoi metalikoa	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa
160601*	Bateriak	HP8	R13	Zuzenean birjartzea	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa
130701*	Gasolioa	HP3	R13	Bidoia	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa
170203	Plastikoak	-	-	Edukiontzia	Zerbitzu orokorrak	100
200101	Papera eta kartoia	-	-	Edukiontzia	Zerbitzu orokorrak	100
190814	Gurpil-garbigailuko lohiak	-	-	Edukiontzia	Zerbitzu orokorrak	200
200304	Hodi septikoetako lohiak	-	-	Zuzenean kentzea	Zerbitzu orokorrak	Noizbehinkakoa

– Sortutako hondakinak biltegitratzea.

Hondakinak biltegitratzeko gehieneko denbora sei hilabetekoa izango da hondakin arriskutsuentzat, urtebetekoa ezabatzeko diren hondakin ez-arriskutsuentzat, eta bi urtekoa balorizatzeke diren hondakin ez-arriskutsuentzat.

– Ispilu-sarrera duten hondakinak.

«Gurpil-garbigailuko lohiak» izeneko hondakinaren kasuan, hondakin horrek ispilu-sarrera du gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta lehenengo aldiz ebakatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Hondakina arriskutsua dela erabakiz gero, hondakin arriskutsuei buruz zehaztutakoa aplikatu beharko da.

ATALA: LURZORUA-BP

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZAK PARTIKULARRAK

– Lurzorua-BOak betetzea.

Lurzoruari dagokionez organo honek onesten dituen ingurumen-baimen bakarreko ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorrak bete beharko dira (Lurzorua-BO).

– Txostenak.

Sustatzaileak txosten hauek aurkeztu eta egunean izan beharko ditu, lurzoruaz ezarritako baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera:

- Lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena.
- Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak.

Lurzorua-BO atalean aipatutako araudian ezarritako betebeharrak betez aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenaren arabera eta bertan jasotako gomendioak kontuan hartuta, sustatzaileak lurzoruaren babesa ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, bai eta egokitzat jotzen diren edo ingurumen-organoak eskatzen dituen guztiak ere.

Horri dagokionez, FR01 gisa kodetutako arrisku-iturrirako arrisku-maila aldatu beharko da, kontuan hartuta dauden elementuek (gasolio-tanga eta olio-bidoiak) ez dutela lurzorua babesteko elementurik (adibidez, atxikipen-kubetak), kontuan hartuta eremu horretan ikusten den zoladurak (txostenaren 60. irudia) ez duela eragozten lurra iragaztea biltegitratutako edozein produkturen ihesengatik, isuriengatik edo bidoien hausturagatik.

ATALA: ZARATA-BP

ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Zaratari buruzko baldintzak.

Behar diren neurriak hartuko dira instalazioak ez ditzan kanpoko ingurumenera transmititu Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko F taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak, betiere Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren –giro-zarataren ebaluazioari dagokienez– II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera ebaluatuta.

Eremu akustiko mota	Zarata-indizeak		
	$L_{K,d}$ (eguna)	$L_{K,e}$ (arratsaldea)	$L_{K,n}$ (gaua)
E. Osasungintza-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar dutenak	50	50	40
A. Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak (1)	55	55	45
D. C apartatuan jasotakoaz bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	60	60	50
C. Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak	63	63	53
B. Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	65	65	55

(1): Muga-balio horiek aplikagarriak dira orobat ezein eremu akustikotan kokatuta ez dauden bizitegi-erabilerako eraikinetarako; balioak eraikinaren garaiera orotan leihodun fatxada guztietara iristen den soinuari dagozkie.

Kanpoaldeko muga-balioak lurretik 2 metroko garaierara neurtuta daude, eta fatxada leihodunen kanpoaldean, eraikinaren garaiera guztien.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla ulertuko da baldin eta, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, baldintza hauek betetzen badituzte ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean:

- Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

- Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

- $L_{K,q}$, T_i indizean neurtutako ezein balioek ez ditu 5 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

Gainditzerik izanez gero, egon daitezkeen gainditzeak zuzentzeko zuzenketa-neurrien proposamena aurkeztu beharko da. Neurri horietako bakoitzaren jarduera-egutegia proposatu beharko da, egikaritzearen arduraduna izendatuta.

– Zarataren kontrola.

Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urtetik behin: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i eta L_{Aeq} , 60 segundo.

ATALA: INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA-BP

INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Ingurumena Zaintzeko Programa-BOak betetzea.

Ingurumena Zaintzeko Programari dagokionez organo honek onesten dituen ingurumen-baimen bakarreko ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza orokorrak bete beharko dira (Ingurumena Zaintzeko Programa-BO).

– Kontrolak egitea.

UNE-EN ISO 17020 arauaren arabera akreditatutako entitateek diseinatuko dituzte ustiapen- eta mantentze-faseetan zaintza- eta kontrol-lanetarako laginketa eta lagin-hartzea. Entitate akreditatuak entitate ustiatzailearekiko independentea izan behar du, eta ezinbestekoa izango da lehendik ez parte hartu izana instalazioaren diseinuan, fabrikazioan, horniduran, instalazioan, zuzendaritza fakultatiboan, laguntza teknikoan edo mantentze-lanetan.

Halaber, zaintzarako eta kontrolerako zehaztaperen analitikoak UNE-EN ISO 17025 arauaren arabera akreditatutako laborategiek egingo dituzte.

– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Urtero, Barbachano SLk jardueraren inguruko honako parametro-adierazle hauen jarraipena egingo du, ingurumenean zer eragin duen aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Onartutako hondakina	tm
Gasolio-kontsumoa, guztira	kWh
Gasolioaren guztizko kontsumoa / onartutako hondakina	kWh/tm
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	Kg
Zabaltze- eta trinkotze-lanen eraginkortasuna (erdietsitako dentsitatea)	Isuritako tonak / Okupatutako bolumena

Adierazle horiek urtero kalkulatu eta kontrolatuko dira, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko dira.

ATALA: ZABORTEGIA-BP

MATERIAL NATURAL INDUSKATUETARAKO HONDAKIN GELDOEN ZABORTEGIARI BURUZKO
BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia ustiatzeko baldintzak.

Baimen hau emateko ingurumen-organo honetan aurkeztutako ustiapen-planaren eta haren eguneratzeen arabera ustiatuko da material natural induskatuetarako zabortegia.

Bermatu beharko da une oro betetzen dela hondakin-irristatzeei aurre egiteko segurtasun-faktorea; alegia, $\geq 1,5$ dela egoera arruntean eta $\geq 1,3$ istripu-egoeran. Horretarako, gutxienez kontaktu-azalera eta «Zabortegeiak kokatzeko, diseinatzeako eta zaintzeko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidean ezarritako irizpideak barne hartzen dituen analisia egingo da (III.3 apartatua).

Ustiapen-planaren edozein aldaketa jakinarazi beharko zaio ingurumen-organoari, eta egonkortasun-azterketaren berrikuspena barne hartuko du, bai eta hasierako proiektua aldatzen duen beste edozein alderdi ere.

Zabortegiko fase bakoitzaren ustiapena amaitu ondoren, Barbachano SLk horren amaieraren berri eman beharko dio ingurumen-organo honi, baita behin betiko leheneratzearen aurreikuspena ere.

Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan ustiapen-planaren betetze-mailaren bilakaera-maila adierazten duen txostena sartuko da. Halaber, hurrengo urtean egin beharreko obren eta hondakinek bete beharreko eremuen aurreikuspena gehituko da, gutxi gorabeherako kotak, aurreko urtean utzitako hondakinen bolumenaren kalkulua, soberakin-gaitasuna eta urte horretan utzitako hondakinen batez besteko dentsitatea adieraziz.

– Datu meteorologikoen bilketa.

Aurkeztutako memoria teknikoan jasotako proposamenaren arabera, material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia ustiatzean eta ondoren mantentzean parametro meteorologikoak kontrolatzeko, Barbachano SLk estazio meteorologiko bat izango du instalazioen barrutiaren barruan, eta prezipitazioa, tenperatura, haizearen indarra eta norabidea, hezetasuna, presioa eta eguzki-erradiazioa kontrolatuko dira.

Datu meteorologiko guztiak 10 minutuz behin pilatutako neurri-erregistroan hartuko dira, eta sintesizerrrenda bat islatuko da, eguneko batezbestekoarekin.

– Isuri-ontziaren topografia kontrolatzea.

Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegiaren ustiapen-fasean, ontziaren morfologia kontrolatuko da urteko jasotze topografikoaren bidez, eta sei hilean behin zehaztuko da utzitako hondakinek hartzen duten azalera, utzitako hondakinen kantitatea eta gainerako edukiera (bolumenean neurtua).

Halaber, ustiapen-fasean, hilean behin zehaztuko da zabortegiaren portaera mekanikoa, neurketa-sekzioen sare baten kontrol topografikoaren bidez (itxi ondoren, sei hilean behin). Sare horrek ustiapen-fasearen arabera behar adina sekzio izango ditu. Orobat, maiztasun berarekin kontrolatuko da pitzaduren eta higadura-arrastoen agerpena.

Zabortegiko ontzian ezohiko mugimenduak daudela edo pitzadurak maiztasun handiz agertzen direla ikusten bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaio, eta horien jarraipen xehatua egin beharko da, bai eta horien jatorria edo ondorioak zehazten dituen azterketa/analisisen bat egin ere, hala nola egonkortasun-azterketa espezifiko bat.

Kontrol topografiko horren emaitzek honako hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitarteko, material eta lekuak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

Zabortegeko betelanaren plano topografiko egin beharko da urtean behin, mugak, leheneratutako eremua eta azken urtean hondakinak non biltegitatu diren adierazita, zona bakoitzaren azalera zehaztuz.

Atal honetan adierazitako informazio guztia dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

– Balantze hidrikoa.

Kanpoko entitate batek zabortegearen balantze hidrikoa egin beharko du urtero, eta, horretarako, datu meteorologiko erregistratuak erabiliko ditu. Aipatutako balantzea dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

Balantze hidrikoa egiteko, ingurumen-organoak ezarritako jarraibide teknikoei jarraitu beharko zaie.

– Tresneriaren kontrola.

Urtean behin, tresneriaren kontrolean espezializatutako enpresa batek txosten bat egingo du zuzenketa-neurrien funtzionamenduari eta prozesuen eta ingurune ko kalitatea kontrolatzeko sistemen funtzionamenduari buruz.

– Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegea ixteko eta leheneratzeko obrak gauzatzeko baldintzak eta eskakizunak.

Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegean baimendutako fase guztien leheneratzea amaitutakoan, ixteko eta leheneratzeko lanen zuzendariak egiaztatu beharko du lan horiek ebatzen honetan eta honen oinarri diren dokumentazio teknikoan horri buruz ezarritako baldintza eta eskakizunen arabera egin direla. Egiaztapena egiteko, zabortegea leheneratzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko da, obra-zuzendariak sinatuta, eta ixteko eta landareztatze ko egindako jarduketak gehituko beharko dira, dokumentazio hau erantsita:

- Eraikitze ko proiektua (*as built*), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela; plano sorta, eta obra-fasean egindako aldaketa posibleek ebatzen honetan eta ebatzenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasun-murrizketarik ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatutakoan ikusi ezin diren elementuen eta horien ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak eta planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

- Plano topografiko bat, landare-lurrezko geruzaren gainazalarena, UTM ETRS 89 koordenatuetan eta kota absolutuetan emana.

Aipatutako proiektuak, gainera, zabortegearen egonkortasun globalari buruzko azterlan eguneratu bat jaso beharko du, leheneratzea osatzen duten geruzak barne hartuta, berriz, ezbehar egoeran. Egonkortasunaren azterketa eguneratuak, gutxienez, «Zabortegeak kokatzeko, diseinatze ko eta zaintze ko irizpideak ezartzeko gomendioak» jarraibidearen III.3 apartatuan identifikatutako kontaktu-azalera jaso beharko ditu.

Aurreko atalean adierazitako obra-amaierako ziurtagiria eta horri erantsitako dokumentazioa Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaizkio, onets ditzan. Aurkeztutako dokumentazioa egokia dela ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak hondakin-uztearen jarduera etetea, leheneratzearen bukaera eta itxi ondorengo aldia abiatzea onetsiko du.

ATALA: EZOHIKO EGOERAK-BP

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI
BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Jarduera uztea.

Ezohiko egoerak-BO atalean aipatzen den lurzoru kutsatuen gainean indarrean dagoen araudiaren arabera, 38 Hondakinen kudeaketa da jarduera-kodea.

– Ezohiko funtzionamendua denean aplikatzeko neurriak eta jardunak.

Instalazioen prebentzioko mantentze-lanak.

Ezohiko egoerak-BO ataleko izen bereko apartatua beteko da.

ATALA: ITXI ONDOREN-BP

MATERIAL NATURAL INDUSKATUETARAKO HONDAKIN GELDOEN ZABORTEGIA ITXI
ONDORENGO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Itxi ondorengo baldintzak.

Barbachano SL enpresa izango da material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen, zaintzaren eta kontrolaren arduraduna, eta ingurumen-organoari jakinaraziko dio lan horretaz arduratuko den pertsonaren izena.

Posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, edo itxi ondorengo kontrolaz arduratuko den pertsona aldatzen badira, titularrak jakinarazi egin beharko du.

Itxi ondorengo kontrola eta zainketa-aldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren jardura eten eta leheneratzea bukatzean den data onartzen den unetik kontatzen hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, aldatu egin ahal izango da data hori, itxi ondorengo kontroletan lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldia amaitzea eta horri dagokionez ezarritako betebeharrak amaitzea ingurumen-organoak itxi ondorengo aldia amaitzeari buruz emaniko ebazpenaren bidez erabakiko da, sustatzaileak hala eskatuta, eta alde zuzenetik apartatu honetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuta.

Barbachano SLk itxi ondorengo zainketak gauzatzen direla behatzeaz arduratuko den enpresa izendatuko du. Enpresa hori ez baldin bada zabortegiaren titularra, gutxienez urtebeterako izendatuko du titularrak. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi ondorengo zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta ordura arteko itxi ondorengo zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

Barbachano SLk itxi ondorengo fasean zehar kontrol-prozeduretan agerian jarritako ingurumenerako ondorio negatibo esanguratsu oro jakinaraziko die ingurumen-organoari eta Mungia Udalari, eta hartu beharreko neurri zuzentzaileen izaerari eta egutegiari buruz agintaritza eskudunak hartutako erabakia ere bete beharko du. Gainera, ondorio negatiboek uretan eragina dutenean, Uraren Euskal Agentziari jakinarazi beharko zaio.

Itxi ondorengo aldian zehar kokapenean obrak eta/edo jarduerak egin nahi izanez gero, alde zuzenetik ingurumen-organoaren baimena izan beharko da. Nolanahi ere, ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko da jardura horiek ez dutela eraginik instalazioaren osotasunean, perimetro-kanalen funtzionamenduan, egonkortasunean edo itxi ondorengo kontrol-sistemaren elementuetan; organo horren aurrean egiaztatu beharko da, halaber, jardura horiek ez dutela arrisku onartezinik eragingo garatu nahi den erabilerarako edo jarduerarako, edo, hala eraginez gero, horiek konpontzeko nahikoa neurri zuzentzaile aurreikusitako direla ziurtatu beharko da.

Inolaz ere ez da baimenduko zabortegia itxi ondorengo fasean instalazioari bizitegi-erabilera ematea.

Ereiteen mantentze-lanak egin beharko dira, hala nola ebakitzeak, ongarritzeak eta ureztatzeak.

Zigilatzearen gainean landare-espezie inbaditzaileak haztea zaindu beharko da; hala badagokio, horiek ugaltzea kontrolatzeko eta errotik kentzeko neurriak hartu beharko dira.

Azaleran jaulkitze, irristatze eta higadurarik izan bada, denak konpontzea.

Aldizka, drainatze-elementuen ikuskapen bisualak egingo dira, bai eta 24 orduko epean prezipitazio handiak gertatu ondoren ere, higadura-seinaleak, asentuak, pitzadurak, jalkinak eta drainatzea blokeatzeko arriskua dakarten elementuak identifikatzeko.

Itxi ondorengo fase honetan hondoko drainaren funtzionamendu txarra agerian jar dezaketen anomaliak detektatuz gero (lixibiatuen metaketa esanguratsuak, iragazgaitasuna galdu izanaren zantzuak...), segurtasun-faktoreak berraztertuko dira azterketa espezifikoaren bidez.

Zabortegeko ontzian ezohiko mugimenduak daudela edo pitzadurak maiztasun handiz agertzen direla ikusten bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaio, eta horien jarraipen xehatua egin beharko da, bai eta horien jatorria edo ondorioak zehazten dituen azterketa/analisisen bat egin ere, hala nola egonkortasun-azterketa espezifiko bat.

Baldintza optimoetan edukiko dira zabortegeko eremu guztiak, dela zabortegea ezartzeko lurzatikoak, instalazio osagarrietakoak eta sartzeko bideetakoak, dela zerbitzu-sareak gauzatzeko eta lixibiatuak husteko beharrezkoak direnak. Besteak beste, lurrazaleko ura biltzeko kanalizazioak, drainatzeak eta instalatutako beste elementu osagarri batzuk, hala nola dagozkion kontrol-kutxatilkak. Aipatutako elementuren bat narriatu dela antzemanaz gero, ahalik eta azkarren konpondu beharko da.

Horien erregistro bat edukiko da, eta ingurumena zaintzeko programarekin batera ingurumen-organoari igorriko zaizkion aldizkako txostenetan sartuko da.

ERANSKINA

USTIATZEKO ETA JARDUERA UZTEKO BALDINTZA OROKORRENA (BO)

Sustatzaileak ustiatzeko eta jarduera uzteko bete beharko dituen baldintzak eta eskakizunak eranskin honetan eta ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza partikularren (BP) eranskinean jasotakoak izango dira.

ATALA: OBRAK-BO

JARDUERA EZARTZEKO EGOKITZAPEN-OBRETARAKO BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK

Neurriak eta kontrolerako langile-kopurua behar adinakoak izango dira atal honetan finkatutako kalitate-helburuak eta ingurumen-txostenak xedatuko dituenak bermatzeko.

Neurri horiek guztiak obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute. Era berean, obretako jardunbide egokiak aplikatuko dira.

– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Proiektuan proposatutako leheneratzea zehaztapen hauen arabera berrikusiko da:

- Gomendatzen da, ez bada behintzat zabortegiaren bukaerako kondizioengatik ez dela egokia, 1. zonan haritza erabiltzea leheneratzean erabiltzen diren gainerako zuhaitz-espezieen pareko proportzioan, zonak haritzi azidofilo eta baso misto atlantiko gisa eboluzionatu ahal izan dezan.

- Ezpondetako aldaxkak landatzeko dentsitatea oso txikia da, eta zalantzazkoa da leheneratze azkarra eta eraginkorra bermatzeko modukoa den. Sahats-aldaxken landaketak lurreko metro karratu bakoitzeko 1-2 aldaxka erabiliz programatzen dira; hau da, sustatzaileak jasotzen duen 1 ud/8 m²-tik oso gorako dentsitatea erabiltzen da. Ildo horretan, berrikusi egingo da proposamena, aldaxka-landaketa birdentsifikatuz eta ezpondetan erabili beharreko azken dentsitatea justifikatuz betiere. Era berean, egonkortzeko beste teknika batzuk baloratzea gomendatzen da, hala nola sare biodegradagarriak edo bestelakoak erabiltzea.

- Leheneratze-proposamenaren berme-aldia 2 urtekoa da, eta hori ez da nahikoa. Proiektua aldatu egin behar da, berreskuratuko diren formazio-motak eta formazio horiek okupatutako azalera kontuan hartuta, gutxienez 5 urteko berme-aldia ezartzeko, landareak behin betiko errotu arte kontrola bermatuko duena.

- Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko eta ezabatzeko proposamena egokitze jotzen bada ere, bermatu behar da benetan ezarriko direla proiektuan; horretarako, xehetasunez garatu beharko da alde aurretik (zona/espezie bakoitzerako jarduketa-metodologia).

- Leheneratze-neurri guztiak proiektuan bertan txertatu behar dira, exekuzio-esparruan eraginkortasunez ezartzeko moduan, behar besteko xehetasunekin garatuta.

Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegiaren ustiapen-aldian, guneak ahalik eta denbora gutxien egongo dira landareri gabe; hori horrela izan dadin, ustiapen-zonak amaitu ahala landareztatu behar dira.

Itxitura perimetralen zenbait puntutan tarte libreak utzi beharko dira, beheko aldean, lur-arrasetik 15-20 cm-ko garaierakoak. Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegia amaitzeko fasean, itxitura guztiak kentzea gomendatzen da.

Ahalik eta animalia txiki gutxien hil daitezten drainatzeko eta isurketak desbideratzeko hodietan itota edo atera ezinik geldituta, elementu horiek diseinatzean, arreta jarriko da animaliak atera ezinik ez gelditzeko moduan diseinatzeko. Hori lortzeko, neurri hauek hartu beharko dira:

- Zorroten mailakatuaren diseinuan irtetea ahalbidetzen duten elementuak barne hartzea, hala nola arrapala zimurtsu txiki bana 25 m-ko tarte bakoitzeko, 30 ° inguruko angeludunak edo ihes-zulodunak.

- Areka trapezoidalak eta V-formakoek 30 °-ko edo gutxiagoko angeluekin proiektatuko dira, eta, nolana ere, profil angeluzuzeneko arekak saihestuko dira, animalia txikiak ateratzea zailtzen dutenak.

- Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegian utzi beharreko materialen jatorria.

Emandako dokumentazioan zehazten den moduan, zabortegian bakar-bakarrik onartuko dira hondeaketa-lanetatik ateratako lurrak eta arroak, Europako hondakinen zerrendan EHZ 170504 kodea dutenak –Europako hondakinen zerrenda Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 2014/955/EB Erabakiaren bidez ezarri zen, zeinak aldatu baitzuen hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia–.

Proiektatutako zabortegitik kanpo geratzen dira, berriaz, lehen aipatutako material naturalak, baldin eta:

- a) Induskatzean ikusten bada material naturalez bestelako material edo objektuekin nahasita daudela, hala nola hormigoi-hondarrak, material zeramikoak, metalak, plastikoak, zurak eta abar.

- b) Materialak lurzoru hauetatik badatoz: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean eta Kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan definitutako lurzoru kutsa dezakeen jardueretakoren bat hartu duten zoruak; eta ezingo dira zabortegian utzi % 65etik gorako hezetasuna badute. Era berean, ez da onartuko kutsatuta egon daitekeen sumoak dauden lurzoru batetik etorritako materialik.

Kokaleku horietatik datozen materialak badira, nahitaez ingurumen-organoak aldeko iritzia eman beharko du lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren esparruan, 4/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, lurzoru naturala den material induskatua soilik onartuko da, baldin eta frogatzen bada ezein substantzia kutsatzaileraren edukiak ez dituela gainditzen VIE-A balioak eta 50 mg/kg-ko balioa TPHrako.

Lurzoru naturalarekin parekagarria den arroka-substratu meteorizatu bat kudeatzen bada, bete beharreko irizpidea izango da parametro kutsatzaileetako bakar batek ere ez gainditzea VIE-A balioak eta 50 mg/kg-ko balioa TPHrako.

- c) Era berean, ez da landare-lurrik onartuko, eta 30 cm arteko gainazaleko geruzetan bakarrik erabiliko dira lur horiek, bai eta leheneratze-elementu gisa ere.

- Proiektuaren eremua.

Jardueraren gehieneko afekzio-eremua bat etorriko da sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduran aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten diren mugekin.

Obrak, bai eta lurra okupatzea berekin dakarten eragiketa lagungarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Eremu horretatik kanpo, ahalik eta gehien murriztuko dira makinaren joan-etorriak. Gainera, ez da belar-sastrakarik garbituko, ez landarerik kenduko, beteko den gunetik edo okupatuko diren bideetatik kanpo.

Adierazitako eremutik kanpo istripuz afekziorik egonez gero, hori zuzentzeko eta lehengoratzeko neurri egokienak aplikatuko dira.

– Urak eta lurzoruak babesteko neurriak.

Proiektua uren jabari publikoko eremuan edo horren zortasun-eremuan egitekoa bada, URA-Uraren Euskal Agentziak administrazio-baimenaren prozedura bete beharko du.

Obra-makinetarako eta beste instalazio lagungarri batzuetarako guneak drainatze naturaleko saretik isolatu beharko dira. Bestalde, mantentze-eragiketak edo erregaia transferitzeko eragiketak horretarako egokituko den gunean egingo dira, lurrean olioak edo erregaiak ez isurtzeko moduan.

Hidrokarburoen material xurgatzaile espezifikoak izan beharko da, ustekabeko isuri edo ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

Material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegean materialak metatzearekin lotutako jarduera guztietan, lurzoruak, lurpeko urak eta azaleko urak ez kutsatzeko beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak beteko dira.

Lurzoru emankorraren goiko geruza selektiboki erretiratuko da, lurrak bota aurretik, lehengoratzean berrerabiltzeko eta nekazaritza-lurzutiaren emankortasunari eusteko. Horretarako, landare-lurra biltzeko eremu bat hautatu beharko da, proiektuak hartuko duen eremuaren barruan. Geruzak bereizita metatuko dira, gehienez ere 2 metroko altuera eta 3 metroko zabalera duten geruzetan. Komeni da pilaketa-eremuak seinaleztatzea.

Landare-lurra, pilatuta dagoen bitartean, obrako makinen edo lurra zapaltzearen eraginez ez trinkotzea lortu behar da. Orobat, ahalegina egin beharko da landare-lurraren ezaugarriak ez galtzeko edo hobetzeko, ongarriz eta gramineoak zein lekadunak ereinda edo lurra estalita. Pilatutako lurra aldi behin aztertuko dira, espezie aloktono inbaditzaileak baden detektatzeko, eta, hala badagokio, zuzenketa-neurri egokiak proposatzeko.

Landare-lurra ahalik eta denbora gutxien edukiko da pilatuta. Ahal den neurrian, geruza horiek ahalik eta lasterren zabalduko dira berriro, haren ezaugarri fisikoen galera galarazteko eta hazien erretze-gaitasuna eta jarduera biologiko naturala aprobetxatzeko.

Proiektua gauzatzean eragindako gune guztiak lehengoratu egingo dira (aldi baterako pilaketa-eremuak, aldi baterako lurzoru-okupazioak, obra-eremuetarako sarbidea). Landareztatze-lanak espezie autoktonoekin eta ahalik eta lasterren egingo dira, higadura-prozesuak eta solidoak ibilguetara herrestatzea ekiditeko.

– Landa-ingurunea babesteko neurriak.

Proiektuak ezarri beharreko neurri hauek jasoko ditu, bai obrak egiteko, bai ondorengo utsiapenerako:

- Belardi, laborantza eta aprobetxamenduetatik erretiratzen den lurzoruaren azaleko geruzaren landare-lur emankorrena gainerako indusketa-lurretik aparte pilatu behar da, ondoren jatorrizko lekuan jartzeko, beheko geruzetara irauli gabe.

- Makinen, materialen eta abarren erabileraren eraginpean dauden belardi eta laborantza-eremuetan, dagokion berrereintza egingo da. Belardiak berrereiteko, aldeztatik lurra pixka bat landu edo aitzurtu beharko da luraren trinkotasuna desegiteko, era horretan egokiak izan daitezkeen ondorengo berrereintza eta erneketa.

- Hala badagokio, eragindako laborantzak birlandatuko dira, dagozkien kalte-ordainekin.

- Itxiturak eta lurzatietan dauden gainerako azpiegitura-elementuak (bideak, drainatzeak, etab.) eta eragindako laboreak ordeztu behar dira.

– Airearen kutsadura murrizteko neurriak.

Ahalik eta hauts gutxien sortuko da jarduera egiten den bitartean, bai materialak garraiatzean, bai materialak lurtean botatzean. Horretarako, neurri hauek hartuko dira:

- Sarbidean, ibilgailuen trafikoa eta obrako makinena mugatuko da.
- Garraiatutako zama olanaz estaliko da, eta, beharrezkoa izanez gero, gain-gainetik ureztatuko da.
- Materialaren zamalanak ahalik eta hauts gutxien sortzeko moduan egingo dira.

Aldian-aldian, sarbideak garbituko dira, eta, harrotzen den hauts kantitatea zein den, ureztatzeak ere programatuko dira. Sarbideek egoera onean egon beharko dute une oro, lokatzik gabe. Hala badagokio, garbiketa egiteko, zisterna-ibilgailuak arituko dira ureztatzen, edo, zenbait tokitan, presio-mahukak edo antzeko tresnak erabiliko dira.

Ez da hondakinik erreko, ez eta beste inolako materialik ere.

– Zaraten eta bibrazioen ondorioak minimizatzeko neurriak.

Zarata sorburuan murrizteko jardunbide egokiak aplikatu beharko dira, bereziki materialak garraiatzeko eta deskargatzeko eragiketetan, erabilitako makinaren mantentze-lan orokorretan, zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan, makineria mugitzearen ondoriozko zarata gutxitzean, obretan erabilitako tresnen soinu-emisioak kontrolatzean eta abarretan. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 51. artikuluan eta horrekin bat datorren araudian aipatutako zarata-foku berriei aplikatu beharreko muga-balioak bete beharko dira beti.

Zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta ateratako zaratari dagokienez zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, lanetan erabiliko diren makinek, aire librean erabiltzeko makinaren zaratari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko dute. Batez ere otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko dute, hau da, aire librean erabiltzeko zenbait makinek atera dezaketen zarata arautzen duena, eta gainerako arau osagarriak.

– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

Sortutako hondakin guztiak Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan-kasuan, karakterizatu egin beharko dira hondakin mota eta helmugarik egokiena zehazteko.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.

Hondakinak deuseztatzeke, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasita, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitratzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen. Aipatutako edukiontziek edo ontziek era argian, irakurgarrian eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batez pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko berariazko edukiontzia jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneeetatik bereizita.

Sortzen den olio erabilia kudeatzeko, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 29. artikulua eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua bete beharko da.

– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoari jarraituz, lurak erauzteko obretan arkeologia-izaerako aztarnarik aurkituz gero, berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari, eta azken horrek zehaztuko du zer neurri hartu behar diren.

– Kalitate akustikoa babesteko neurriak.

Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako zarata-foku berriei aplikatu behar zaizkien zarata-immisioaren muga-balioak beteko ditu (I. eranskina, 2. zatia, F taula).

Jarduera dekretu horretan ezarritako parametroen arabera garatuko dela ziurtatzeko, aldiro neurketak egingo dira hurbilen dauden etxebizitzetan, bai egokitzapen fasean, bai jardueraren funtzionamendu fasean. Neurri hori material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegean materialak botatzeko erabiliko den sarbidearean mugan bizi direnen kasuan ere aplikatuko da. Hala badagokio, neurketen emaitzak ikusita, kalitate akustikoko helburu aplikagarriak lortzeko beharrezko diren neurriak finkatuko dira.

– Ingurumen-aholkularitza.

Obrak hasten direnetik material natural induskatuetarako hondakin geldoen zabortegearen ustiapen-aldia amaitu arte, ingurumen-gaietan eta babes- eta zuzenketa-neurrietan kualifikatutako aholkularitza-enpresa baten laguntza jasoko da.

Obra-zuzendaritzak ebazpenik eman behar badu, baldintza-agiriak horrelako gaien inguruan esleitzen dizkion funtzioak erabiliz, aholkulariek txostena egin beharko dute aldez aurretik.

Ingurumen-aholkularitzak, gainera, jardunbide egokien kontrola egingo du, obra egikaritzean. Bestek beste, proiektuko ekintzen eragina aztertuko du, bereziki hauei dagokienez: makinaren mugimenduak, hauts eta zarataren sorrera, hondakinen kudeaketa eta natura-ondarearen babesa.

ATALA: HONDAKINEN KUDEAKETA-BO

HONDAKINEN KUDEAKETAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

– Onartzeko baldintzak eta kontrolak.

Tratamendurako onargarriak diren hondakinak hondakinen kudeaketaren inguruko baldintza partikularretan daude zehaztuta.

Lantegian tratatu beharrekotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, eragileak hondakin hori onartzeko eskabidea bidali beharko du Ingurumen Sailburuordetzara, horrek onets dezan, eta, behar izanez gero, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da.

Hondakin jakin bat onargarria dela egiaztatu ondoren, jardueraren titularrak dokumentu horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarrita. Horrez gain, hondakina onartzeko parametro mugatzaileak edo baldintzatzaileak jasoko dira, eta, hala badagokio, hondakin-partida bakoitza hartu aurretik aztertu beharreko parametroak.

Instalazioan inolaz ere ez dira onartuko baimendu ez diren hondakinak, edo hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, bestelako hondakin mota generikoren batekin nahastuta egoteagatik kutsatuta daudenak.

Hondakin bat baztertzen bada, eta hondakin horren EHZ kodea hondakin baimenduena bada, tratamendu-kontratuan aurreikusitakoarekin bat etorritz, organo honi jakinarazpen bat bidaliko zaio berehala (aau@euskadi.eus eta inspeccionambiental@euskadi.eus helbide elektronikora), eta honako hauek jakinarazi beharko zaizkio:

- Baztertzeko arrazoa.
- Baztertutako hondakina lekualdatzeko operadoreak aukeratu duen ordezkio aukera kudeatzeko bidea.

Baldin eta onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organoi ere jakinarazi egin beharko zaio.

Hondakin bat ezin bada onartu, zeinaren EHZ kodea hondakin baimenduen artean baitago, tratamendu negatiboaren kontratu bat egin beharko da, hondakin horiek kudeatzeko ezintasunaren arrazoiak azalduz.

Baimenaren titularrak industrian sortutako etxeko zaborrak eta/edo merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak kudeatu ahal izango ditu (20. taldeko EHZ kodea duten hondakinak), ebazpen honetan adierazi direnak, baldin eta dagozkion udal-ordenantzen arabera ez bada beharrezkoa hondakinok hondakinen kudeaketa-sistema publiko bati entregatzea.

– Hondakinen lekualdaketa.

Hondakinak lekualdatzeko, hondakinak lekualdatzen diren guztietan, bai instalaziotik kanpora, bai kanpotik instalaziora, behar bezala bete beharko da ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena.

Horrekin bat etorritz, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua arabera.

Unean uneko egoeraren ezaugarriei erreparatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen barruko hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta eta Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planeko helburu estrategikoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Jardueraren titularrak lekualdaketari buruzko informazioa jaso beharko du bere fitxategi kronologikoan, eta identifikazio-agiriaren kopia sinatua gorde beharko du hiru urtez; bertan, hondakinak entregatu eta onartu izana adieraziko da.

Aldez aurretik jakinarazi beharreko hondakinen lekualdaketak identifikatzeko dokumentuen kasuan, jardueraren titularrak hondakina jasotzen denetik gehienez 30 eguneko epea izango du identifikazio-agiri hori organo eskudunari bidaltzeko. Bidalketa hori gauzatzeko, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren ingurumen-informazioa kudeatzeko sistema baliatuko du.

– Espainiaz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetatik datozen kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2024/1157 Erregelamenduan, 2024ko apirilaren 11koan, hondakinak lekualdatzeari buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek (EB) 1257/2013 eta (EB) 2020/1056 erregelamenduak aldatzen ditu, eta (EE) 1013/2006 Erregelamendua indargabetzen du.

Gainera, aurreikusten bada zaborteagian deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizatze- eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante nabarmenen bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

– Hondakinen sarrera-kontrola.

Instalaziora tratamendua egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, baimeneko baldintzen arabera instalazioan onargarriak direla bermatzeko.

Kontrol horretan, Ingurumen Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Tratamendu-kontratuak Espainiaren lurralde barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa bete beharko du, eta, besteak beste, alderdi hauek jaso beharko ditu: hondakinei emango zaien tratamendua, hondakin horiek onartzeko baldintzak eta alderdiek dituzten betebeharrak hartzaileak hondakina baztertzeko badu.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, beste hondakin batzuk ere kudeatu nahi badira, beharrezkoa izango da aldez aurretik Ingurumen Sailburuordetzaren onespena, ebazpen honetan xedatutakoari jarraikiz.

– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta beharrezko maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Zamalanak egitean, hondakin arriskutsuak kudeatuz gero, gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

c) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipoen estankotasunak eta deskargatzeetan biltegiratutakoen xurgapena ere, emisio lausoak edo kontrolik gabekak saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

– Kudeatzaile baimenduari entregatzea.

Bai transferentzia-zentro gisa jardunda jaso daitezkeen hondakinak, bai jardueraren garapenean bertan sortutako hondakin guztiak, horretarako baimendutako kudeatzaileari entregatu beharko zaizkio.

– Tratamendu-kontratuen indarraldiaren ziurtapena.

Aldian-aldian egiaztatu beharko zaio organo honi indarrean jarraitzen dutela instalazioko titularraren eta hondakinak kudeatzen dituzten hartzaileren artean ezarritako tratamendu-kontratuek. Hondakinak hartzen dituzten kudeatzaile horiek Espainiatik kanpo badaude, beharrezkoa izango da mugen arteko garraioak arautzen dituen Batasuneko arautegia betetzea.

– Kudeaketa-eragiketen hierarkia.

Edonola ere, birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakin kudeatuak helburu horietara bideratuko dira, eta jardueraren titularrak hondakin horien hartzailerekin egindako tratamendu-kontratuetan jasoko da gertaera hori.

– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa. Artxibo kronologikoa.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, jardueraren titularrak fitxategi kronologiko fisiko edo telematiko bat izan beharko du, eta bertan, esku hartutako jarduera guztiei buruzko datuak jasoko dira ordena kronologikoan. Aipatutako fitxategi kronologikoan sartuko da, orobat, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa, eta bertan, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

a) Onartutako hondakinen jatorria (jatorria eta prozesua, enpresa sortzailea eta enpresa garraiolaria).

b) Kantitateak, izaera, osaera eta identifikazio-kodea.

c) Hondakin-partida bakoitzaren onarpen- eta harrera-data, eta, hala dagokionean, ematean sortutako kontrol- eta jarraipen-agiria.

d) Onartu ez diren hondakin-partidei buruzko datuen erregistroa (jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, ez onartzeko arrazoiak eta ordezeko helmuga).

e) Biltegiratutako hondakinak instalazioko zer tokitan dauden.

f) Hondakinak aldeztatik egokitzeko edo multzokatzeko eragiketak, hondakin-partiden datak, parametroak eta haien buruzko datuak, hondakinen ondorengo helmuga eta partida bakoitzari emandako EHZ kodea.

g) Instalazioko kudeaketa-lanen datak edo azken kudeatzaile baimenduari bidalketa egin zaionekoa, kudeatzaile horren identifikazio-datuak, eta, hala badagokio, sortutako identifikazio-agiriarenak.

h) Izaera eta frakzioa (pisuan), bereizitako hondakin arriskutsuen mota bakoitzeko.

i) Prozesuan sortutako hondakinen eta/edo frakzioen kantitateak, izaera, osaera, identifikazio-kodea eta helmuga.

j) Baztertutako hondakinei buruz: Baztertutako hondakinaren kantitatea, izaera, jatorria, hondakinaren kausa eta azken helmuga.

– Artxibo kronologikoaren laburpen-memoria.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikularekin bat etorritik, urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da fitxategi kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegitratutako hondakinen eta hondakin kopuruaren zerrenda ere jasoko du, instalazioan tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeke dauden hondakinena, bai eta sortutako hondakinena ere.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak organo honetara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

– Larrialdietan berehala jarduteko bitartekoak.

Larrialdirik gertatuz gero, berehala esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kopuru nahikoan: berriro ontziratzekeko erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia; kaltetutako inguruneak isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak; eta norbera babesteko ekipamenduak.

– Suteen aurkako segurtasun-neurriak.

Suteak itzaltzeko, industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasunaren arloan eskumena duten organismoek eskatutako ekipoak eta agenteak instalatuko dira. Hondakin erregaiak (plastikoak, pneumatiko erabiliak, etab.) biltegitratzeko berariazko eremuan sute-arriskuak prebenitzeko neurri zorrotzak ezarriko dira, esaterako, gehiegizko metatzeak saihestuko dira.

ATALA: AIREA-BO

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

– Emisio lausoak.

BP-Airea atalean emisio lausoen fokuak identifikatzen badira, neurri hauek hartu beharko dira:

– Zamalanak. Garraioa:

- Zamalanak olagarroen bidez egin.

- * Materialen zamalanak ahalik eta gehien murriztea.
- * Materiala deskargatzeko unean erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztea.
- * Materiala hartu ostean zalia edo gakoak erabat ixtea.
- * Deskargatu ostean, zalia pilatan denbora nahikoan uztea.

- Pala mekanikoarekin kargatzea/deskargatzea.

- * Materialen zamalanak ahalik eta gehien murriztea.
- * Materiala deskargatzeko unean erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztea.
- * Kamioiak kargatzean, pala kamioiaren ohean ahalik eta gehien sartzea.

• Bestetik, materiala garraiatuko duten kamioiak olanekin edo hautsa harrotzea saihesten duten bestelako elementuekin estali beharko dira.

• Era berean, murriztu egingo da ibilgailuen abiadura, eta zolatuta egon beharko dute ibilgailuen zirkulazio-eremuek.

– Bideak, lurzorua eta makineria garbitzea:

- Bideak, lurzorua eta makineria aldian-aldian garbituko dira.

• Bideak eta lurzoruak garbitzeko, ekortzeko eta baldekatzeko makinak erabiliko dira, eta baldekatzeko ekipoa eta ekortzekoa konbinatuko dira, hautsa ez dadin barreiatu.

– Pilatzea:

- Pilaketa horretarako prestatutako lekuetara mugatuko da.
- Pilaketa egiteko, luzetarako ardatza haize nagusiarekiko paraleloan geratuko da.

• Materiala pilatzeko eremuek aspertsoreak izango dituzte ureztatzeko. Sustatzaileak, hasierako ECA txostenarekin batera, instalazioan instalatutako aspertsoreen banaketa aurkeztu beharko du.

- Ahalik eta gutxien pilatu behar da.

• Aldizka urez bustiko dira pilaketak egiteko zabalgunearen barruan makineria maniobran aritzeko eremuak.

- Ezin da pilatzen jardun, edo pilak desegiten, eguraldi txarra denean.

2025eko irailaren 4a, osteguna

Emisio lausoak minimizatze aldera, emisioak biltzeko sistemen mantentze-lan egokia egingo da; horrez gain, besteak beste, instalazioa garbituko da, kanpoko ateak eta pabiloienak itxiko dira, eta ingurumen-praktika egokiak eta teknika erabilgarri onenak aplikatuko dira.

Administrazioak foku lausoen irteerak egokitzeko eskatzerik izango du, eta emisio bideratuen baimenean sartzeko, horiei dagozkien muga eta neurketa-aldizkakotasunekin.

ATALA: URA-BO

HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Jardueraren isurketak eta horien ezaugarriak Ura-BP atalean jasotzen dira.

– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-urak arazketa-instalazioek edo zuzenketa-neurriek Ura-BP atalean zehaztutako jarduketak barne hartuko dituzte funtsean.

– Isurketa-uraren kalitatea kontrolatzea.

Ura-BP atalean zehaztutako analitikak egingo dira.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, Ingurumena Zaintzeko Programa-BO atalean adierazitakoaren arabera.

ATALA: HONDAKINAK SORTZEA-BO

INSTALAZIOAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO
BALDINTZA OROKORRAK

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatuko dira Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinak kudeatzeari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea. Birsortzea edo berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatze beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio horietara bidali beharko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken destinoa zabortegei baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarritu egingo dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak zabortegetan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak zabortegetan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ingurumen-baimen bakar honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegitratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanpora isurtzea saihesteko. Hauts-itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarri dagokienez, bat etorritik betiere honako hauetan ezarritako irizpideekin: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita Hondakinen Zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen (EB) 1357/2014 Erregelamendua, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira ingurumen-baimen bakarrean jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu edo galdu egingo balira, edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa ingurumen-organon eta instalazioa kokatuta dagoen udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritz Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31 artikuluan ezarritako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen diren kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2024/1157 Erregelamenduan, 2024ko apirilaren 11koan, hondakinak lekualdatzeari buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek (EB) 1257/2013 eta (EB) 2020/1056 erregelamenduak aldatzen ditu, eta (EE) 1013/2006 Erregelamendua indargabetzen du.

– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak Hondakinen ekoizpena–BP ataleko taulan jasotakoak dira.

Hondakin arriskutsu bakoitzari dagozkion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaizkio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarritzko beste batzuk, euren izaera dela-eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dituzte mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskuratzea edo balorizatzea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan uzte- edo ezabatze-kodeak balioztatzea eskatzen bada.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela-eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jarrituta edo lurrunduta gal ez daitezzen.

Hondakin arriskutsuak gehienez 6 hilabetez eduki behar dira biltegitratuta.

Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko eskakizuna izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori hondakina lehenengoz atera aurretik igorriko zaio ingurumen-organon honi, eta, behar izanez gero, hondakinak kudeatzaile berri

batengana eraman aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamendua egokia den aztertzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ingurumen-baimen bakar honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Sustatzaileak artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraibideak betetzen dituela horrelako gaiak garraiatzeko ezarritako eskakizunak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Sustatzaileak sortutako olio erabilia kudeatu beharko du industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren arabera.

Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak–. Pilen eta metagailuen hondakinek, halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratu izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-entitateei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-entitateek entrega horiek egin direla egiaztatzen badute. Toki-entitateei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

Ekoizleak poliklorobifeniloak (PCB) dituzten edo izan ditzaketen aparatuak dauzkan bitartean, haiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten aparatuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen horretan, eta hori aldatu zuen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako eskakizunak bete beharko ditu.

Sustatzaileak ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko (EE) 1005/2009 Erregelamenduan zehaztutako gai erabiliak baldin baditu, berreskuratu egingo dira alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez deuseztatzeko, edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz, edota birziklatzeko edo birsortzeko xedez, tresnak berrikusi eta mantentzeko eragiketetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

Sustatzaileak urtero adierazi beharko dio ingurumen-organoari sortutako hondakin arriskutsuen jatorria zein den, zein kantitate sortu den, zer erabilera emango zaion eta adierazpenaren xede den ekitaldiaren amaieran zeintzuk dauden aldi baterako biltegitratuta. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa bidaliko du, urtean urtekoa.

Hondakin arriskutsuen ekoizle gisa, artxibo elektroniko batean, honako datu hauek jaso beharko dira, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraibidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

Urtean 10 tonatik gora hondakin arriskutsuren hasierako ekoizlea bada, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluari jarraituz, sustatzaileak minimizazio-plan bat izan beharko du, eta, planaren barruan, sortutako hondakin arriskutsuen kopurua eta haien arriskugarritasuna murrizteko hartuko dituen neurriak jaso beharko ditu. Plana agintaritza eskudunen eskura egongo da eta, lau urtean behin, ekoizleak emaitzen berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari. Aurreko betebeharretik salbuetsita egongo da EMAS ziurtagiria badu, edo, mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak barne hartzen dituen beste sistema baliokideren bat; horretarako, dagokion informazioa ingurumen-adierazpen baliozkotuan jaso beharko da.

Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada sustatzailea bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, horrenbestez, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

Amiantoa duten hondakinak daudela hautemanenez gero, sustatzaileak 108/1991 Errege Dekretuaren (amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzei buruzkoa) 3. artikuluan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuaren arabera egingo dira, zeinaren bidez ezartzen baitira amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak.

– Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuak egoki kudeatzearen kalitatea kontrolatzea.

Apartatu honetan adierazitako agiriak ingurumen-organora bidaliko dira, transakzio elektronikoen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabilita.

- Laburpen-memoria.
- Artxibo kronologikoa.
- Hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plana.

– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak Hondakinak sortzea–BP ataleko taulan jasotakoak dira.

Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak, materialen arabera, egoki bereizita entregatu beharko zaizkio agente ekonomiko (hornitzaile) bati, berrerabiliak izan daitezkeen, ontzi erabilien kasuan; edota berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati, ontzi-hondakinen kasuan.

Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki; hondakinen azken helburua balorizazioa denean, berriz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

Oro har, kanpora eraman aurretik, hondakin guztiek izan beharko dute sinatuta tratamendu-kontratu bat kudeatzaile baimendu batekin, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ingurumen-baimen bakar honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Sustatzaileak erregistratu eta

artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, hiru urtean gutxienez.

Hondakina zabortegira eramateko bada, hondakin ez-arriskutsua lekualdatu aurretik, jarraipen- eta kontrol-dokumentua bete beharko da. Horretarako, bete egin beharko da Hondakinak zabortegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatzen dena.

Hori hala izanik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluari jarraikiz.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak arau horren XV. eranskinean agertzen den gutxienerako edukia barne hartu beharko baitu.

Urtean 10 tona hondakin ez-arriskutsu baino gehiago sortuz gero, Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikulua arabera, sustatzaileak formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatze produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Artxibo kronologikoa hondakinen sorrera- eta kudeaketa-lanetarako exijitzen diren egiaztatze dokumentaleko informazioaz osatuko da. Fitxategi kronologiko hori gutxienez bost urtez gorde beharko da.

– Instalazioan sortutako hondakin ez-arriskutsuak egoki kudeatzearen kalitatea kontrolatzea.

Apartatu honetan adierazitako agiriak ingurumen-organora bidaliko dira, transakzio elektronikoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabilita.

- Laburpen-memoria.

ATALA: LURZORUA-BO

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

– Babes-neurriak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzekoa) ezarritako betebeharrak betez aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenaren eta horretan jasotako gomendioen arabera, sustatzaileak lurzoria babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu, bai eta Lurzoria–BP atalean espezifikatutakoak ere.

– Lurzoruaren egoeraren txostenak.

4/2015 Legearen 16.2 artikulua betez, lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostenak aurkeztu beharko dira, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko Dekretuaren 19. artikuluan ezarritako aldizkakotasunarekin.

– Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren hasiera.

Sustatzaileak lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko prozedura hasteko eskatu beharko dio ingurumen-organoari, baldin eta ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada.

– Entitate akreditatua.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera akreditatutako entitate batek eman beharko du, eta organo honek horretarako onets ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

ATALA: ZARATA-BO

ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

Zarata-BP atalean ezarritako indize akustikoak ez gainditzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira.

Zamalanetako jarduerak eta materialak kamioietan garraiatzeko jarduerak egitean sortzen den zarata ezingo da izan sentikortasun akustiko handieneko eremuetako ingurumen-maila baino askoz handiagoa.

– Zarataren kontrola.

Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako ingurumen-lankidetzako entitate batek egin beharko ditu, bat etorri urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Entitate horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera akreditazioa eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denboralaginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten entitateek gaitasun tekniko egokia dutela.

Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak ingurumen-organo honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

ATALA: INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA-BO

INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

– Emaidzak kontrolatzea eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidali, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak ezarritako entrega-prozedura telematikoa jarraikiz.

Hala, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko da berehalako jakinarazpena Ingurumen Sailburuordetzara, gertatutakoaren berri izan ondoren, prebentzio-neurriei eta egoera normalez bestelakoetan funtzionatzeko baldintzei buruzko baldintza partikularren apartatuetan ezarritakoari jarraikiz.

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Bidalketa hori urtean behin egingo da, betiere martxoaren 31 baino lehen.

ATALA: EZOHIKO EGOERAK-BO

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA OHIKO EGOEREZ BESTELAKOETAN FUNTZIONATZEKO
BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

– Instalazioa geldiarazteko eta martxan jartzeko eragiketak eta mantentze-lanen eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen estimazioa egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta egoera anomaloetan sortutako hondakinak Hondakinak sortzea-BO eta Hondakinak sortzea-BP ataletan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

– Jarduera uztea, itxi ondorengo aldia bukatuta.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, sustatzaileak jarduera uztearen berri eman beharko dio ingurumen-organuari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduketa-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, organo horrek ezar dezan noraino iristen diren haren betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Arauari dagokion jarduera-kodea Ezohiko egoerak-BP atalean ezartzen da.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, sustatzaileak instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, Hondakinak sortzea-BO eta Hondakinak sortzea-BP ataletan ezarritakoari jarraikiz.

– Funtzionamendu anomalorako prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentazioan jasotako proposamenean zehaztuta dauden ohiko egoerez bestelakoetan aplikatu beharreko prebentzio-neurriez eta funtzionamendu-baldintzez gain, honako apartatu hauean aipatzen diren baldintzak ere bete beharko dira:

Instalazioen prebentzioko mantentze-lanak.

Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburuak eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuz isurketak edo ihesak daudenean, kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substanzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa bat jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen begizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, hainbat neurri jaso beharko dira, atmosferara egindako emisioak eta uretara egindako isurketak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipoen egoera ona bermatzeko.

Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeheren berri ere.

Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Arazketa-instalazioetan, hondakin-urak ezingo dira bypass bidez isuri.

Programatutako mantentze-lanetan derrigorrez egin behar badira bypass bidezko isurketak, titularrak ingurumen-organo honi jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. Bypass horretan aurreikusi gabeko isurketaren bat gertatzen bada, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua akreditatu beharko du, dagokion txostena ingurumen-organo honi bidalita (apartatu honetako «Gorabeheraren bat gertatuz gero, agintariei jakinaraztea» puntuan adierazitakoari jarraituz).

Besteak beste erabilitako olioak, efluenten arazketako hondakinak eta, oro har, fabriketan sortutako hondakinak maneiatzean, kutsatu egin litezke lurzorua eta ura. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten partzelen azalera guztiak irazgaiztu egingo dira.

Hauts-itxurako produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

Prozesurako behar diren lehengai, erregai eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriari dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoa den material guztia edukiko da, hau da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekiporeziak.

Kubetak husteko eragiketarako kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat izango dute, eta saiatu behar dira efikaziari eragin diezaioketen isuriak tratamendu-instalaziora joan ez daitezen.

– Gorabeheraren bat izanez gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen gainean edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaera baten aurrean, sustatzaileak berehala eman beharko dio gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri ingurumen-organoari –dagozkion zuzenketa- edo euste-neurriak hartu ondoren betiere–, horretarako ezarritako helbide elektroniko hauek baliatuz: aau@euskadi.eus eta inspeccionambiental@euskadi.eus. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Berehala aplikatu diren zuzenketa- edo euste-neurriak.

- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jarduketak, halakorik egonez gero.

Gorabehera edo arazo larriren bat izanez gero, eta istripuz emisio edo isuriren bat izaten den guztietan, berehala jakinarazi beharko zaie SOS Deiak zerbitzuari eta instalazioa non dagoen kontuan hartuta dagokion udalari. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehatz-mehatz jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio ingurumen-organoari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu zen.
- Iraupena.
- Istripuz emisiorik gertatuz gero, emaria eta isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisa barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Ezohiko gertaera berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimeneko baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kaltetu badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori; gainera, horren berri eman beharko die URA – Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoek, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak hartu ditzaten.

Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dira.